

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1991ko Apirilak 5, 101. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**GEMA eta  
MARI PILI,  
Portaloiko  
ilusio-saltzaileak**

# Xake mate

**Buskadiko Xake Txapelketa Arrasaten**

Joseba



## HOTZ - BERO

KLIMATIZAZIOA

Kanpantorpea 2, Tfnoak: 79 70 98 eta 79 67 54  
ARRASATE

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA (Estrazioak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA





Izena emateko  
epea  
APIRILA 18ra  
arte luzatu da

## 25 URTE KALITATEZKO IRAKASKUNTZA • EUSKARAZ •

.....  
1991-1992 IKASTURTERAKO IKASTOLAN SARTZEKO  
IZEN-EMATE EPEA IREKI DA  
.....

### **Kalitatea** Irakaskuntzaren Erreforman:

- 16 urte arte luzatzeko aurrepauak emanez.
- Irakasle goa aldaketei aurre egiteko hornituz.

### **Kalitatea** Proiektu desberdinetan:

- Eskolaurrea eta Hasiera zikloen arteko elkarlotura.
- Ingelesa 1go mailatik aurrera.
- Ordenadoreen erabilpena.
- Teknologia 7 eta 8. mailetan.

### **Kalitatea** Euskalduntze prozesuan:

- D eredua; jatorriz euskara duten ikasleentzat.
- "Murgiltze" eredua; jatorriz gaztelania duten ikasleentzat.

### **Kalitatea** Zerbitzuetan:

- Auzoetan kokatua.
- Geletan haur-kopuru txikia.
- Orientazio departamendua:
  - Psikologia
  - Logopedia
  - Heziketa berezia
- Jantokia eta garraioa.

Izenak emateko tokiak: **GAZTELUONDO (Ikastola berria)**  
Ordua: **4etatik 6etara.**



# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65

## Laguntzailea:

Arrasateko Udala

## Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

## Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

## Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

## Maketazioa:

Goio Arana

## Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki Mendiguren

## Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Arantza Ozaeta, Txipi Ormaetxea.

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

## Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

## Copyright:

ARRASATE PRESS

## Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

## Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

# Musika eta garbiketa

“Lehen popero ginen eta rokero orain; lehen astero dutzatzen ginen, hilean behin orain” zioten lehenagoan musika talde bateko kideek euskal aldizkari batean. Ulergarri, guztiz, izan ere gaztaroan erabiltzen diren uste-eskema zabalek denetarako ematen bait dute. Horrexegatik ere, roka atsegin duten asko egunero dutxa daitezke.

Garbitasunaren kontzeptua hain pertsonala izanik, historiaren eskailetatik gora egin genezake, gizadiak garbiketaren gain eduki dituen eritziak ezagutzeko. Eta, ezpairik gabe, egundoko ezustekorekin egingo genuke topo, mendeetan zehar ez bait dira berdinak izan, era batera nahiz bestera ura erabiltzeari buruzko jarrerak

Mihi gaiztoek diotenez, frantziar perfumeak hain ospetsu izatea, frantziar hiritarrek urari izan dioten beldurrari zor zaio. Luis XIVgarren “toilette”-a, adibidez, alkoholez bustiriko zapi batez eskuak igurtzera mugatzen zen. Eta Versaillesko jauregian ez omen zen bainu-gelarik, farfailez apainduriko zaldunek eta seta goxoz tolesturiko dama galaiek urik beharrean perfumea nahiago zutelarik.

Lurrinak zeharo beharrezkoak ziren, gorpuzte zieren usaina ezabatzeko.

Aurreritzi moral eta sasi-higienikoak erruz ugaltu ziren European XIV eta XVgn mendeetan, gorpuztaren garbiketa oso zati konkretutan eta inoren begietatik urrun egitera agintzen zelarik. Jakina, debeku eta zigorrak askozaz gogoragoak ziren garbiketa toki publikotan eginez gero: “Uretara sartu eta bertan bainatu eta garbitzen direnei, arautegi honen arauerako zigorra aplikatuko zaie” zioen ikasle-araudi batek. Areago, zenbait osasun-testutan ur hotzez ahalik eta gutxien igurtzea gomendatzen zen, ur hotzak “poroak ixten dituelako”.

Ohiturak ohitura eta eritziak eritzi, badirudi garbiketaren inguruan ematen diren jarrerak guztiz aldakorrek direla, nork bizitzaren aurrean darakusen ikuspuntuaren arauera. Nik ez dakit roka ur gutxiago behar ote duen popak baino. Baina jarreraren zioa gizakiengan bilatu behar dugula iruditzen zait. Izan ere, urak gehiegi tiratzen ez zuen tipo horietako bat Mozart jainkoarra bait zen.

*Josemari Velez de Mendizabal*

**UGARAN  
jatetxea**

Garagariza erua - 1/757656 Arrasate

**enpresa  
bazkariak  
eta famili bilerak**





**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

**Liburu eta oparidenda**

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84



**Zorzi**

**GIZON ETA  
EMAKUMEAREN  
MODA**

Otalora 2/g  
Tfnoa: 79 20 50  
ARRASATE



**JOSTEKO**

**OIHALAK**

Errekabarren 20,  
Tfnoa: 79 80 90 ARETXABALETA

**Apirilak 8,**  
**Abaroan erakusketa**  
**12.00etatik 19.00etara**

**BELASI**  
**etxeko moda**

**Etorri eta eraman zure**  
**oparial**

**“Arrasate Press” eta hizkuntz  
tratamendua**

Ondo deritzot “A. Pressen” moduko aldizkari bat egotzie eta eittie Arrasaten, finean Euskarak hainbeste merezi dau; baina nire kezka beste muturretik doiez. Azalduko naz: ez al da batua delakuez larrei idazten delako A. Press-en? eta bestetik, ez al da Arrasateraz (nolabait deitzearen) gutxiei, -ia ezebez- idazketan?

Ez daukat inolako arrazoi berezirik batuaren erbilketaren kontra, baina nik behintzat arlo ezberdinak mugauko neuzke: ez da bardin nazio-mailako medixo baten idaztie edo herri-mailako beste baten eittie. Nire ustien kontu handixaguan euki biherko leikien aldizkariaren irakurle-go potentziala.

Kontua da -eta kezka handixa dabantako euskaria, apurka-apurka galtzen doiel, mostrarako esan neike jende gaztie ez dittuela ezaguketan bertako “hikako” hainbeste era, gaztie jeneralien, hikan eitten badaue Ikastola edo Eskolan ikasittako modu “batuan” eitten daue, ez badaue “Euskanlez” eitten -hau beste muturreko kontue da-, bestalde eta bukatuteko esan biher -euskalzale nazenez- bertako euskaria galtzen badogu, Arrasateko bitxirik berezixena galduko dogula.

*Eneko Arantzako*

**Uraren fluorazioaren aurka**

Urkuluko urtegian, ura fluorazteko instalakuntza automatikoa jartzea onartu zela eta, EKIk proiektu horren aurka zenbait adierazpen egin nahi ditu:

Kariesa dela eta ez dela, EAeko biztanleok ur fluoratua edatera behartuta gaude. Zientzilariek ere, ez daukate garbi urari fluorra botatzea ona edo txarra den, fluorra oxidantea bait da.

Fluorak eragiten duen kalterik handiena fluorosia da, hau da, hezurretan dauden kristaltxoak suntsitzen duen gaixotasuna, eta gainera beste kalte batzuk eragin ditzakeena: min erreumatikoak, sabel eta giharretako minak, egonezina, azalaren aldaketak, gibeletako lesioak, etab. Kalte hauek ez dira berehala antzematen, eta hogeit urtera arte ere, azaldu gabe egon daitezke.

Estatuan, 1971.etik umeei fluora sistematikoki ematen zaie, eta gainera ortzore gehienak fluordunak dira. Gaur egun, 20 urte beranduago, minbizia gehitu egin da, gaixotasun erreumatikoak gehitzen doaz, gizentasuna gero eta hedatuagoa dago, hezurretako okerrak gero eta arruntagoak dira, eta gainera gazte gehienek hortzetan zikinkeria daukate.

Esandakoari, fluorazioak kariesaren aurkako eragina bakarrik denbora baten izaten duela gaineratu behar zaio. Kariesaren konponbidea giza-ekonomi maila hobetzean datza, argi dagoelako ekonomi maila baxue-na daukatenak, altua daukatenena baino hortzagindura okerragoa daukatela. Dieta ezinbestekoa da kariesaren prebentziorako, barazkiak eta frutak jan, eta azukre gabeko janarien kontsumoa bultzatu.

Moraliki eta politikoki hartuta, norberaren gorputzean eragina izango duen uretara horrelakorik botatzeko badago eskubiderik?

Bizi garen gizartean, legeak inori ez dio behartzen bere gorputzean eragina izan dezakeen edozer gauza hartzera. Proiektu honek, ordea, bai. Fluorazioak, gizarte aske baten oinarritzko giza eskubidea suntsitzen du: gu geuk erabakitze eskubidea, zeren uren fluorazio proiektuak jende guztia, baita hortzik ez duenari ere, fluoruroak hartzera behartzen bait du.

Esandako guztiagatik Urkuluko ura fluorazteko instalakuntza automatikoa jartzeko proiektua gelditu dadin eskatzen dugu.

*Deba Garaiko EKI*



# Erljioa eskolan erakustearen aldekoa zara?



**Rosa Urreta**  
(Irakaslea)

Ez. Nik uste dut bakoitza librea dela nahi duena irakasteko, baina eskolan ez litzateke eman behar.



**Ignacio Fernandez**  
(Jubilatua)

Bada, ez dago gaizki. Nik neuk ez dut sinesten, baina ez dut gaizki ikusten. Seme-alabei ere, handi egin arte, derrigorrean eman diet erlijioa.



**Iban Lazkano**  
(Ikaslea)

Ez. Iruditzen zait izan behar duela gauza bat derrigorrezkoa izan behar ez duena, borandatezkoa. Jendeak aukeratu egin behar du nahi duen ala ez.




**Inmaculada Garcia**  
(Etxekoandrea)

Bai, hori oso ondo dago. Nik uste ondo dagoela, lehen geneukan ohitura umeek gal ez dezaten.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

**ARRASATE - ESKORIASATE**

**LURINDEGIA**

# ERTZ

**OPARIETAKO ARTIKULOAK**

**Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate**

# Memesa

## 79 42 22



# ETXE- -AUNDI

**Ostiraletan  
d a s t a t u  
g u r e  
m e n u  
b e r e z i a k**

**3.500 pta. inguru**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
ONATI



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate (Especialista) .....	77 12 64
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako ambulanziaz .....	45 87 44
------------------------------	----------

**UDALTAINGOAK**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZAINZA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTZAILEAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

**GARRAIOAK**

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**


Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55

**MONTERRONGO LIBURUTEGIA**

Monterron .....	77 01 05
-----------------	----------



5

**OSTIRALA**

• • •

- Zinea: Amaia. Sexu zineari buruzko zikloa, 10.30etan.
- Alai. "El Padrino III", 7.30 eta 10.15etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala.
- Gauetz: Mozos. Bergaran .

6

**LARUNBATA**

• • •

- Zinea: Alai. "El Padrino III", 7.30 eta 10.15etan.
- Erakusketa, zaborrari buruz, Portaloian.
- PSOEren Batzar Orokorra, goizeko 11etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin.
- Gauetz: Camacho. Bergaran .

7

**IGANDEA**

• • •

- Zinea: Alai. "El Padrino III", 7.30 eta 10.15etan.
- Doke Txapelketa ume eta gaztetxoentzat Monterongo zelaian, goizeko 11.00etan.
- Lehiaketa, Azeriaren harrapaketa, Irratizaleek antolatuta. Musakolan, arratsaldeko 4etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina.
- Gauetz: Camacho. Bergaran .

8

**ASTELEHENA**

• • •

- Zinea: Alai. "El Padrino III", 7.30 eta 10.15etan.
- Familia eta Gizarte Heziketarako Zentruan ikastaroa.
- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala.
- Gauetz: Puy. Bergaran .

9

**ASTEARTEA**

• • •

- Zinea: Alai. "El Padrino III", 7.30 eta 10.15etan.
- Amnistiaren aldeko Batzordeak antolaturik, enkartelamendua, Portaloian arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Morales, San Andres.
- Gauetz: Guallar. Bergaran .

10

**ASTEAZKENA**

• • •

- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías.
- Gauetz: Estella. Bergaran .

11

**OSTEGUNA**

• • •

- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturriotz.
- Gauetz: Mozos. Bergaran .



**FUTBOLA**

• • •

- San Andres eta Alegria taldeen arteko futbol partidua Atxabalpen, igandean arratsaldeko 4etan.

**FUTBITOA**

• • •

- Zaldibarko futbito txapelketako erdifinaletako bi partidua, igande goizean Zaldibarko frontoian.

**ESKUBALOAIA**

• • •

- Arrasate Kiroloak eta Usurbil taldeen arteko partidua, Musakolako Kiroldegan, larunbatean arratsaldeko 6etan.

**SASKIBALOAIA**

• • •

- Centraljet Euskal Air eta Argaray taldeen arteko partidua Musakolako Kiroldegan, larunbatean arratsaldeko 7.30etan.



## Dirulaguntzak

### • Jose Letona beka

Udaleko Kultura Batzordeak, Jose Letona beka ateratu, Arrasateko Parrokiko Artxibategiaren antolaketa egiteko sortarazi den beka hain zuzen. Beka eskuratu ahal izateko, Filosofia eta Letretan lizentziatua izatea eskatzen da, edo gutxienez azken kurtsoan ibiltzea. Proiektua aurrera eramateko beka eskuratzen duenari, 750.000 pezetako dirulaguntza emango zaio eta lana egiteko hamazortzi hilabetetako epea.

Eskaerak egiteko azken eguna maiatzaren 3a izango da, eta eskaerarekin batera lanari buruzko proiektua ere aurkeztu egin beharko da.

## Ikastaroak

### • Taila ikastaroa

Uriburu kaleko tailerrean eta datorren asteleheneretik maiatzaren erdira arte, egurren taila ikastaroa burutuko da. Ikastaro hau 30 ordukoa izango da, astean hiru egunetan izango direlarik, klase bakoitza bi orduko iraupenaz. Ikastaroari buruzko informazio gehiago izan nahi duenak, edo argibide gehiago lortu nahi dituenak iluntze aldera telefono zenbaki hauetara deitzea besterik ez dauka: 79 40 79 (Felix) eta 79 21 05 (Xanti).



## IKASTAROAK

### Sukaldaritza eta eskulanak

Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak antolatuturik, datorren astean eskulanen tailerra eta sukaldaritza buruzko ikastaro trinkoari emango zaio hasiera.

Eskulanen tailerrean, tarazea, portzelana errusiarra, eztainua eta larrua mailuz lantzea eta pintaketa irakatsiko dira. Tailerraren ekintzak hilaren 11an hasiko dira, arratsaldeko 6.30etatik 9etara eta 20 ordu iraungo dute.

Sukaldaritza ikastaroa beriz, hilaren 15ean hasiko da, 40 orduko iraupena izango du eta klaseak, astelehen eta ostegunetan izango dira 6.30etatik 8.30etara. Irakaslea Maria Teresa Altuna izarigo da.

Bai eskulanen tailerrean eta baita sukaldaritza ikastaroan plazak mugatuak dira, beraz izena eman nahi dutenek Santa Teresa kaleko 12. zenbakian dagoen zentrura joatea besterik ez daukate, 3.30etatik 8.30etara bitartean, edo 79 04 59 zenbakira deitzea.

## Lehiaketak

### • Doke txapelketa

SUDC-ek antolatzen duen Umeen Doke Txapelketa joan den astean jokatzeko zen, baina eguraldi txarra medio, atzeratu beharra egon zen. Txapelketa hori, igande honetan jokatuko da, goizeko 11etatik aurrera Monterrongo zelaian. 14 urtetik beherako mutil eta neska guztiek hartu ahal izango dute parte.

### • Mus txapelketa

Arrasateko elkartearen arteko hamahirugarren mus txapel-

keta jokatzen ari da, eta bihar larunbatez ligako azken ihar-dunaldia jokatuko da. Oraingoz, Alkartu, Udalpe, Bide Gain, eta Torrepe elkarteak dira aurreko postuetan daudenak, eta seguruen kanporaketetan sartuko direnak. Txapelketa honetako erdifinalak hilaren 12an jokatuko dira, eta finala 26an.

## Irteerak

### • Mendi irteera.

Murrukixo Elkarteak anto-

laturik, Gipuzkoako Itzulia egin nahi da. Informazioa: asteazkena eta ostegunetan 6etatik 7ak bitartean. Telefonoa: 79 93 74

### • Zikloturistak

Arrasate- Kanpanzar-Elorrio-Durango- Goiuria-Mañaria-Urkiola-Otxandio-Legutio-Eskoria-tza- Arrasate, ibilbidea egiteko-tan dira igande honetan Arrasateko zikloturista taldekoak.



Guztira 72 kilometroko ibilbidea, eta eurekin batera egin nahi duenak goizeko 10etan

## Liburuak

### • Komikia

"Peru eta Maisu Juan". Mogelen "Peru Abarka" liburu famatua orain komiki gisa argitaratua. Herriz-herri dabilen



Letra-Kit erakusketak argitaratutakoa, hain zuzen. Hilaren 19tik 24era bitartean erakusketari hori Arrasaten izango da.



“ Arrasate Press herri aldizkariak kaleratu du jada bere ehungarren alea. Euskara hutsean argitaratzen den gutxienetarikoa izanik, euskararen normalizaziorako bidean urrats garrantzitsua eman dute Arrasate Press-ekoek. Herri ekimenari esker errealitate bihurtu den aldizkari honek arrakasta handia izan du”.

(Euskaldunon Egunkariako dianan)


“ Denboraz eman zuen aditzera Patxi Montorok Arrasate Pressen 100. zenbakia ospatzeko pentsatutako ideia: Tapia eta Leturia hankak eta gogoa berotzeko, RIP aktuazio bakarrean eta zenbait kanta jotzeko eta Minxoriak azken jaialdi bezala, baina Minxoriak egiten dituen bertsoietako kantariak biltzeko ideia erakargarriarekin. (...)

Egia esan, gure errealismoak ideia originala, ikusgarria zela esaten zigun, baina ia gauzatu ezina izango ote zen susmoa genuen, eta seguruenik desordenearekin edo aipatutako artisten hutsegitearekin topo egingo ote zuten. (...)

Itoitzeko Juan Karlos etorriko zelakoan Minxoriak-ek prestatuta zeukan 'Lau Teilatu'k huts egin zuen, eta baita Aitormena-k ere. Minxoriaki desenbolutura instrumentala eta jarrera bikaina zor dizkiegu. Gonbidatuei hutsik egin eza. Ikuslegoari berriz, bere burua erabat ematea eta gaua atsedean eta istripurik gabeko jai bihurtzea. RIPi luzatzen ari den agurra. 'Arrasate Press'i ideia zoragarria eta eman zigun egurreta fisikoa. Faltan sentitzen genuen”.

(Pablo Cabezak Egin egunkariako *Bat, bi, hiru* sailean)

Nola joan da bidaietan lehen hiruhilabetea? Gerraren eragina zertan nabaritu da? Aste Santuko oporretan nabaritu da?



Gu bezala batez ere enpresa bidaietan dabiltzan bidai agentziek esko antzeman dugu bidaiak atzera botatzea. Egun batetik besterako bidaiak dira, azkar joan eta azkar etorri. Urteko denboraldi honetan hegazkin konpainiek krisia jasan dute, berez denboraldia negozio bidaiena delako. Frantzia, Ingalaterra... eta orokorrean Europa guztira, bidaiak asko kantzelatatu da, segurtasun ezarekin jendeak ez du irtetzen eta. Jende horrek bidaiak uztearen ondorioz kendu behar izan dituzte konpainiek hegaldi asko, gerraren eraginez jendeak bertan geratu delako. Turismo aldetik, bestalde, Londres eta Paris, baina lehena batez ere, negozioengatik eta plazer bidaiekin urte guztia beteta dauden hiriak dira, eta bertan esan digutenez, hutsik egon dira, asko eragin du. Denboraldi baji horren ondoren, Parisen adibidez, ohi ez bezala denda guztiak zabalik egon dira, galerak berdintzeko asmoz edo. Gerra izan den inguruekin guk geuk ez dugu hainbeste lan egiten, baina bidaiak asko geratu da bertan behera. Iberia bezalako enpresek bidaiak ugari utzi dute. Opor ostean normaltasunera itzultzen ari da kontua.

Prezioetan izugarritzko beherakadak izan direla ere entzun da, baina ez da horrela, hemen ez da beherapenik ikusi.

Eugenio Arana,  
Melia Bidai agentziakoa.

FERRERIAS 21, Tfnoa: 79 70 06 • ARRASATE •

KILIKOLO

ZUBIZARRETA  
TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea 22  
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67



## Oñati

• Laixanek antolatuturik Oskorrik datorren hilaren 20an eskainiko duen kontzertua, eta Geroa antzerki taldeak hilaren 18 eta 19an egingo duen "Ertzaina al pil-pil" antzezlanaren antzezpena izango lirateke apirileko kultur programazioaren aipagarrienak. Aipatutakoaz gain, hilaren 25 eta 26an ipuin kontaketa teknikari buruzko ikastaroa burutuko da.



## Bergara

• Udaleko Drogomenpetasunen prebentziaroko Zerbitzuak aurtengo urterako programa prest dauka. Programak, drogomenpetasunen prebentzioa familia, eskola eta gizartera eraman nahi du. Ikastaroak gurasoentzat, heziketa programak irakas-kuntzan, ikastaroak DYA eta Udaltzaintzat... eta antzerako ekintzak izango lirateke aurten aurrera eraman nahi direnak.

• Taun-Taunek eta Kukuma taldeek antolatuturik, hilaren azken aldera nazioarteko txotxongiloek egindako lanekin ihardunaldiak burutuko dira. Txotxongilo aste horrek 2 milioiko aurrekontua dauka, eta Madril, Aragoi, Katalunia, Euskadi, Galizia, eta Italiako taldeek hartuko dute parte bertan.

## Elgeta

• Duela denbora gutxi bertan Trikitilari Eguna burutu zen bezala, orain trikitilari eskola irekitzeko asmoa aldarrikatzen da. Ea ba, asmo hori gauzatzen den.

• Patxi Basauri, Elgetako alkateak zioenez Pesa enpresakoek Durango eta Bergara lotzen duten autobus zerbitzu batzuk kentzekotan dabilta. Oraingoz, Elgetako Udalak asmo hori ez gauzatzea lortu du, behintzat beharren ikerketa serioa egin arte.

## Aretxabaleta

• Murrukixo mendizale elkarteak Zاراia eta Elgea mendikateen ingurugiroaren egoera aztertuz txosten bat egin dio Gipuzkoako mendi-federazioari, argazki eta planoz osaturik. Txosten horren arabera, Gipuzkoa eta Araba lotzen dituzten mendikate horien egoera penagarria izango litzateke, batez ere gizakiak eragindako zikinkeria onorioz. Adibide gisa, esan daiteke sei auto aurkitu direla mendian botata.

• Azken euriteen ondorioz, Urkuluko urtegiaren egoera asko hobetu da, lehen ere gaizki ez bazegoen. Apirilaren lehen egunerako Urkulu %81,08an dago.

• Aitor Antxia eta Iñaki Urretak, Udal Artxibategian XII. eta XV. mendeetako bi esku-izkribu aurkitu zituzten. XV. mendeko esku-izkribuak "Apeamiento y amojonamiento del Valle Real de Leniz" izenburua dauka eta latinez idatzita dago. XII mendeko pergamina gaizki zegoen eta orain Oviedon daukate konpontzen, laster bueltatuko da.



## DEBA GARAIKO UDAL ELKARTEA

Hasteko, urtebeterako, Arrasateko Hondakin Gordailu Alternatiboaren ATEZAIN-ZAINTZAILEA behar da.

**Eskatutako titulazioa:** Eskola-Graduatu, Lehen mailak Lanbide Heziketa edo titulu baliokideren baten jabe izatea.

Interesatuak apirilaren 9aren arratsaldeko 3rak baino lehen, Arrasateko Arrasate Pasealekuan, 5ean, dagoen Udal Elkartearen Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte beren instantziak.

Deialdiaren oinarriak aipatutako Erregistroan daude.

Arrasaten, 1991ko martxoaren 26an  
Lehendakaria

## SANIDES

Parasitoei aurre egiteko  
Intsektu narraztiak akabatzeke,  
arratoiak barne

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

## MARTINEZ

### aroztegia

Sukaldetan  
neurri guztietako  
altzariak

Araba Etorbidea, 13  
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41



**□ Firma bilketa**

Arrasateko Eguzki ekologi taldeak Estatu Espainolean dauden zentral nuklearren kontrako sinadurak jasotzeko, mahaiak jarriko ditu herriko kaleetan apirilaren 6, 27 eta 28an. Estatu guztian zehar, berrehun taldetik gora izango dira ekitaldi horretan partaide, zentral hauen aldeko joera atzera bota dadin burutuko den kanpainaren barruan. Aipatzekoa da apirilaren 27 eta 28an gogoratuko dela Chernobyl-go zentrolean gertatutakoaren 5. urteurrena.

**□ Moda jaialdia**

Mambo Nº1 dantza taldea antolatzen ari den moda jaialdia, apirilaren 20ra atzeratu da, hasiera batetan aste-buru honetan egitekoa zen arren. Amaia antzokiko zantzaileak jasandako istri-puaren ondorioz, eta orain egiten hasi diren konponketek eragin dute atzerakizuna. Jaialdiaren barruan, diseinatzaile berriei euren lanak erakusteko aukera emango zaie, eta aurtengo ekitaldirako bitxikeria bezala, jantzi futuristen diseinu lehiaketa aipatu behar. Lehiaketa horretarako izen emateko epea hil honen 17ra arte luzatu da, jaialdia atzeratzearekin batera.

**□ Termografia**

San Andres auzoaren birmoldaketarako egiten ari diren azterketaren barruan, etxe baten termografia egin du aste honetan CADEMek. Asteazken goizeko 4.30etatik 7etara, etxe barruko beroa gordetzen den, zer neurritan kanpora ihes egiten duen eta abar neurtuaz. Aislamenduaren neurketa horiek egitearen helburua, auzoaren berrikuntza egiterakoan hartu beharreko neurriak aztertzea izan da, eta eredu guztietarako balioko lukeen etxea aukeratu da horretarako. Astebete barru emango dira ezagutzera neurketaren ondorioak.

# Txandaka

## XAKEA... BAI, ESKERRIK ASKO!

**J**olas-zientzia jator honen alde on eta bertuteak erakusteko aprobe txatuko ditut lerro hauek eta jokalarien arrarotasun eta eszentzitatearen inguruan dagoen laino hori desegiten saiatzeko.



Eugenio de Andres (\*)

Xakea jolas osasungarria dela esan behar da beste ezer baino lehen, buru-ariketa eragiten diguna (badago eta beharra, bide batez esanda), eta edozein adinetan eta edozein lekutan joka daitekeena, materiale aldetik inbertsio espartarrarekin gainera. Nork ematen du horrenbeste, hain gutxiren truke? Oholaren gainean estrategiak eta taktikak erabiliaz gure "ego"ak duen gogo gerrazalea proiektatzen dugula kontuan hartzen badugu, gerraren papelada horretan oharkabeko gure tentsioak askatzen ditugula eta erasoaren hondarrez gure psikea arindu egiten dugula kontuan hartzen badugu, eta guzti hori tiro bakar bat bota barik egiten dela, jolasa psikologikoki eta erlajamenduaren aldetik zein ona den

ohartzen gara.

Baina umearen heziketan antzematen da ondoen joko honen balioa eta garrantzia. Eskolaren osagarri bezala erabilia, logika arrazionalaren trebatzea eta garapena ematen dio xakeak umeari, bere planak ezarri behar ditu eta umeak jokaldian, bere konbinaketa eta estrategia baliatuz. Gainera, bere erabakien erantzule izaten laguntzen dio, inor ezin bait du, ez onerako eta ez txarrerako, bere erabakien erantzule egin. Azkenik, une bakoitzean zer pieza mugitu nahi duen, erabakiak hartzen egon behar du uneoro (ezin du pasorik egin), bide askoren artean aukera eginez, geroago gizartean egin beharko duen bezala.

Finean, xakea aukera legez ezarri behar litzateke eskoletan, kafe-tegietan, aisialdiarako lekuetan, etab... eta beharbada horrela, bihar edo etzi gudarik handienak xakeko taula batean jokatuko dira, denon mesedetan.

(\*) Xake Taldeko lehendakaria

# KiDE


## Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

**LILURA** -k  
zeure moda  
diseinatu eta sortzen  
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE





Iturriotz kaleko Lan Kide Aurrezkiaren bulegoan egin daiteke aitorten mekanizatua

## Errenta aitortpena

### Ekainaren 25era arte egiteko epea zabalik

Iazko urteari dagokion errenta aitortpen mekanizatua egiteko, langile bat ipini du Haziendak aurten ere Lan Kide Aurrezkiaren Iturriotz kalean. Apirilaren 2an hasi eta ekainaren 25a bitartean izango da egiteko epea, eta bulego horretara goizeko 8.30etatik 13.30etara joan ahal izango dute herritarrek, aurkeztu beharreko agiri guztiekin. Zerbitzu honekin, aitorten mekanizatua egin dezaketenek Bergarako bulegora joan beharrik ez izatea eta mekanizatuak eskaintzen dituen abantilez jendea baliatzea lortu nahi da. Horrela, gogoratu behar da ohizkoan ez bezala, mekanizatua egiten duen aitortleak astebeteko epean jasoko duela dirua, hala badagokio. Sistema honen berrikuntzen artean, etxebizitzak alokairuan ematen dituztenek, orain arte aurrezki kutxan egiten den ohizko aitortpena bakarrik erabil dezaketen arren, orain mekanizatua egin

dezakete. Bestalde, *zenbatespen objektibo singularra eredu arrunta* izeneko egoeran dauden profesional, artista eta enpresariak ere aitorten mekanizatuaz baliatu ahal izango dira.

Deba Garaian aurten egingo diren aitorten kopuruaz Haziendak egin duen aurrikuspenaren arabera, Arrasateko bulegoan 1.865 aitorten inguru egingo dira, iazkoan baino %10a gehiago, eta Oñatiko bulegoan berriz 1.560. Bergarako zentrolean, 11.250 aitorten jasotzea espero da, Deba Garaiko gainerako herriak eta Legazpi eta Urretxu hartzen dituela kontuan izanik.

Aitortpena nola egin eta egoera bakoitzean tokatzen diren deskontuen berri, nahiz antzeko beste informazio gehiago herritarrari errazteko, dibulgaziozko liburuska bat kaleratu du Haziendak, eta estankuetan izango da salgai 100 ptaren truke.

## Usteak uste

**H**amar hilabete pasatu dira *Kaizo* eta *Larragain* baserriak bota ondoren, Uharkapeko maldan egin ziren obren ondorioz, Azatza izeneko etxeetan eta Altamirara doan bidean lehen brintzak agertu zirenik.

Harez geroztik denetik ikusi izan dugu pilotalekua eta Uharkapeko etxeak egin behar diren tokian: amen-jesus batean lur gehiena eraman ostean, arrapaladan harriz eta lurrez nola bete zuten hutsunea lur mugimendua gelditu arazteko. Malda desitxuraterainoko teinkatze-lanak egin dira, lurri eta goiko etxei ondo eutsi asmoz eta kaleuk gorako zirkulazioa ere moztuta dago. Hala eta guztiz ere, lurra ikara egin du berriro. Hainbeste lan, hain denbora luzean eta oraindik ez da lur mugimendua gelditu erazi.

Helburu hori lortzeko antza denez, beharrezkoa da bigarren faseari ekitea, baina lan horiek Azatza kooperatiba lurretan sartzen omen direnez, ez dago akordiorik harik eta epaileak erabaki arte, auzia epaitegietan bait dago.

Gauzak argitzen ez diren bitartean, garbi dagoena zera da, lurra oraindik mugitzen direla, guzti honen herriko trafikoan eragin kaltegarria duela eta Altamiran bizi direnek ez dutela panorama argirik aurrean. Guzti hori gaitzerdi izango da, bestelako kalterik gertatzen ez den bitartean.

*Joxe Aranzabal*

**LEZARAN**

**ENMARKAZIOAK • LAMINAK • MARGOAK**


**Biteri Etorbidea 11, ARRASATE**



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Urriburu 24,  
Tfnoa: 79 70 39  
**ARRASATE**





Hainbat euskal idazleri omenaldia egiten zaio erakusketan

## Letrakit erakusketa Arrasatera

*Apirilaren 19tik 23ra eta Biterin*

Apirilaren 19tik 23ra bitartean Letrakit erakusketa Arrasaten irekitzeko proposamena jaso du Udaleko Euskara Batzordeak, eta datorren asteleheneko gobernu batzordean hartuko da gai horri buruzko erabakia. Zornotzako kultur elkarte baten ekimenez eta Eusko Jaur-laritza eta hiru Diputazioen laguntzarekin ari da euskal idazle eta euskal literaturari buruzko erakusketa ibiltari hau herriz herri, karpa handiz osatutako modulu batzuetan.

Gure herrira ekartzeko proposamenarekin batera, hainbat baldintza tekniko jaso ditu Udalak: hedaduraren aldetik,

1.200m.ko azalera eskatzen da, eta Arrasaten Biteriko aparkalekuan eta Garibaiko geltokiaren inguruetan kokatu beharko litzatekeela pentsatu da. Horrezaz gain, 26.000 botioko argindarra, eta gauzez zein egunez erakusketa zaintzeko udaltzainen edo ertzantzaren laguntza beharko da. Erakusketaren barruan, 100m.ko azalera ematen zaio udalari, berak erabakitzen duen elkar-teari buruzko erakusketa antolatzeko. Euskara zerbitzuaren proposamenez, AEDren lanaren gorai-pamena egiteko erabiliko da zati hori, oraindik nola erabiliko den erabaki gabe dagoen arren.

### Urkulu

Aretxabaletako urtegiak biltzen duen ur kopuruaren igoera Gipuzkoako beste urtegi batzuetan baino motel eta geldiago gertatzen da. Martxoaren 24ean egingdako euriteen ondorioz, %5eko igoeriz an zuten urek egun bakarrean. Orduetik eta apirilaren 2ra arte, %81eraino igo da ur kopurua, eta 8.108.000 metro kubiko ur biltzen ditu Urkuluk.


### JAIOTZAK

Saiz Baceta, *Jon*. Martxoaren 15ean.  
Blazquez Piñeiro, *Aitor*. 16an.  
Lopez Rubio, *Iraiti*. 18an.  
Urzelai Arregi, *Miren Ohiane*. 18an.  
Agirregabiria Beltran de Gebara, *Iker*. 19an.  
Agirregabiria Beltran de Gebara, *Jone*. 19an.  
Bilbao Irazabalbeitia, *Unai*. 20an.  
Martinez Dolara, *Maddalen*. 20an.  
Eraña Lasagabaster, *Julen*. 21ean.  
Ugarteburu Uribetxebarria, *Saida*. 21ean.  
Vera Gereño, *Nahiara*. 21ean.  
Cuesta Sotos, *Estibaliz*. 22an.  
Goñi Zubizarreta, *Usue*. 23an.  
Gonzalez Minguez, *Leticia*. 25ean.  
Galan Fuentes, *Zahara*. 26an.  
Etxebarria Gil, *Patricia*. 26an.  
Pombar Urzelai, *Nerea*. 29an.  
Larraitz Donaire, *Julene*. 30ean.  
Iglesias Martin, *Iñaki*. Apirilaren 1ean.


### ESKONTZAK

Jose Antoni Bedia & Monserrat Delgado, Martxoaren 16an. Zibilez.  
Angel Torres & M. Rosario Gomez, Martxoaren 23an. Elizaz.  
Luis M. Uribesalgo & M. Karmele Azpiazu, Martxoaren 23an. Elizaz.  
Altube Victor & Teresa Balanzategi, Martxoaren 23an. Elizaz.

## SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka  
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



Kontzesifio 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE

**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE





Teilatu pusketa bat erori zen martxoaren 21ean.

## Ospitale Zaharraren konponketa

*Proiektua datorren astean jasoko dute udaletxean*

Datorren astelehenean jasoko du azkenik Arrasateko Udalak Ospitale Zaharra berregokitzeko egingo den proiektua. San Frantziskoko eliza eta komentuaren atzekaldeko zatia, aspalditik berritzekotan eta kultur etxe batek eskaintzen dituen zerbitzuak biltzeko izendaturik dagoena, egoera txarrean dago azkenaldian, martxoaren 21ean erori zen teilatu pusketa horren lekuko.

Konponketak egiteko helburuarekin, aurrekotuetan diru izendapenak egin ditu Udalak azken urteetan, eta datorren urtekoetan 50 milioi gorderik

daude helburu horretarako, aurrerago gehiago izendatu behar izango den arren.

Udalak ez du oraindik zehaztu zer zerbitzu bilduko duen Ospitale Zaharrak, Arrasate Musikalen egoitza behintzat izango dela argi dagoen arren. Horrezaz gain, Monterron etxearen osagarri ere izan beharko du, aspaldian txiki geratu bait da hura ere. Gaur egun etxe horretan kokatuta dauden bi herri komunikabideak, ATB eta Arrasate Press, antza denez ez dira bertan geratuko, eta egoitza berri bezala Aldaiko udal biltegiak aipatzen dira.

### Erroldako langileak

Deba Garaian herritarren eta etxebizitzaren errolda egiten ari den langile taldeak ohar bat kaleratu du behar adinako soldata eskatuaz. hasiera batean lan guzti hori burutzeko hilabeteko epea ematen zitzairen eta horretarako hilabeteko kontratua baino ez zitzairen egin Udaletan, baina oharrean jakitera eman denez, ez dago lan guzti hori hain epe laburrean kaleratzeko posibilitaterik. Galdeketa bakoitzarengatik %100eko igoera eskatzen dute, eta pentsatutakoaz gain lan egin beharreko hilabetea ere soldataren aldetik zein Segurtasun sozialean kotizatzeke orduan ere kontuan hartua izan daitezten.

### Eskola Politeknikoak

Aurten egin du lehen aldiz bertako ikasleen artean diploma banaketa, iazko teknikoei eman zitzairen agiriekin. Ekitaldira Iñazio Oliveri sailburu berria ere gonbidatuta zegoen, baina Mendieta eta Monreal etorri ziren.



## X. Gorosarri eta M.L. Trojaola doktoreak

### Mediku espezialistak erreumatologian

Titulu nazional frantsesa (Lyon-eko Unibertsitatekoa)

HEZUR, MUSKULU, ZURDA ETA GILTZADURETAKO  
GAIXOTASUNAK.

**Ornoterapia:** manipulazioa, trakzioak...

**Akupuntura:** erreumatologiari aplikatua.

**Osteoporosia:** diagnostikoa, prebentzioa.  
tratamendua.

Lagun Aro / Iquimesa / Diputaziokoa / Igualarorio mediko-kirurgikoa eta  
Partikularrak

Zaldibar 1, 1. Tfnoa: 77 00 40 ARRASATE

## LOREA

Oinetakoak  
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32  
GASTEIZ

## ARAMAIO okindegia


Maisu Guridi 3,  
Tfnoa: 79 36 46




• Zotz-Motzek lau sari banatuko ditu astero, orri honetan agertuko diren galderei ondo erantzuten dietenen artean. Moztu, bada, txartelak eta erantzunak Arrasate Pressera bidali.

• Uztailaren 16an, Zotz-Motzen sari handiak zozkatuko dira: Renault Clio bat eta bi pertsonarentzako bidaia Kanariar Irljetara.


Zozketa handi honetan parte hartzeko txartelak Zotz-Motzen babesleek banatuko dituzte euren bezeroen artean, erosketekin batera.



• ANSCO argazki makina bat.




• HANDY telefono bat.



• CASIO erloju automatikoa.

# Zotz




Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01  
ARRASATE

*Erikite*

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20  
ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 19 25  
ARRASATE



# Motz

## LEHIAKETA

**GALDERA**

Nola  
deitzen  
da  
Monterron  
gaineko  
ermita?

Izena:

Abizena:

Telefonoa:

• Bidali erantzuna eta zure datuak  
Arrasate Pressera: Azoka Kalea 1.



• 2 lagunentzako AFARIA.



• KANARIAR IRLETARA  
2 lagunentzako bidai  
astebeterako.



• Renault CLIO auto bat.



**KATAIDE**  
JABETZAK

Kataide poligonoa, Tfnoa: 79 60 10  
ARRASATE




**BASKOTOUR**  
BIDAIAK

Maixu Arano 2, Tfnoa: 79 32 22  
ARRASATE



**MECA**  
tailerrak






Aste Santuko oporren aurretik amaitu zen **Korrika** ere, eta Arrasatetik martxoaren 21ean pasa. Ikusle gisa jendea pilatu zen arren, korrikalarietan ere talde politak bildu ziren herri barruan, eta horren lekuko Otolara kalean **Xabier Zubizarreta** Arrasateko Alkateak lekukoa hartu zuen unean. Zazpigarren Korrikaren ondoren, bi urte barru zortzigarrena.

Arrasaten ere musiko ospetsuak badirela, zalantzarik ez.

Argazkian dagoena **Patrizia Esparza** txelojole arrasatearra da, eta bere albo bietan daudenak, **Elias Arizkuren** eta **Mstislav Rostropovich**. Patriziak eta Txelo Talde Iberiarra egiten ari den jiraren barruan, gazte talde horrekin Joxe Miel Barandiarani omenaldia eskaintzeko ideia izan du Arizkurenek. Patrizia ere bertan zen, jakina. ▶



Urte hasierako ezkontza bat dakargu aste honetan. **Jose** eta **Belen** urtarrilaren 12an ezkondu ziren Asunziongo elizan, eta bidaia senarraren jaioterrira egin zuten, Portugalera. Zorionak!



**LASAGABASTER**

**JANTZIDENDA**

*Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena*

Zerkaosteta kalea 1 eta 2, Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55 ARRASATE






*Izen*  
**PROPIOAK**

● **Javier Vallina**, 30, arrasatearra. Euskadiko Xake Txapelketan San Andres taldeko ordezkaria. Maisu industrial da, eta lana Fagor taldean egiten du. 17 urte zituela Gipuzkoako txapelduna izatea lortu zuen. Geroztik behin baino gehiagotan irabazi du Arrasateko txapelketa.

Arrasate Pressen 100. zenbakia zela eta joan den astean kirolegian jaialdi arrakastatsua izan zen. Jende ugari eta agindutako musikari gehienak zeukaten onena eskaintzeko prest. Jendearen gogoak hasiera hasieratik berotu zuen giroa, eta **RIP** herriko taldearen jardun arrakastatsuz gain, gogotik jarraitu zuen **Tapia eta Leturiarena** eta **Minxoriak** eta kantari ezberdinek emandako zatia ere. Modu ona ospakizun baterako!

● **Luis Migel Lekuna**, 27, eskoitzarra kontratatu du Eskoriatzako Udalak urtebetez herriko telebistako teknikari izan dadin. Teleskoren sorreratik bertatik kolabortzaile gisa zebilen arren, Imanol Zubizarretaren ordeztatu berri da. Luis Migelek argazkilaritza, bideoa eta zinema ikasketak bukatu ditu Barzelonan azken ikasturtean.

● **Miren Urkiola**, 25, ordiziarra, urtebeterako kontratuaz hartu du Oñatiko Udalak laster emititzen hasiko den Oñatiko udal-irratian lan egiteko. Miren Informazio Zientzian lizentziatua da eta RNE eta ETBn ibilia. Denboraldi batez Euskadi Irratian ari da irratipraktikak egiten.



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25


**ITSASKI**

**arrandegia  
arrain freskoa  
eta jaki izoztuak**

Urbe Auzoa  
Arrasate. 79 98 94



**BONBOIAK**





# Euskadiko Xake Txapelketa: ixiltasunaren erresuma

*San Andres Xake taldeak, bere hogeigarren urteurrenean izugarrizko erronkari aurre egin dio, Euskadiko txapelketa antolatzeari. Jokaldiak hitzez deskriba ezinak direnez, imajina ezazue jolastokiko giroa.*

**A**baroa Egoitzako eguneroko hordago, enbido eta briskei, itxuraz behintzat joko lasaiagoak txanda hartu dio. Joko honetan parte hartzen duten gehienak kanpotarrak dira, eta eurek jokoan ari diren bitartean izaten duten ixiltasuna ere begira daudenengan isladatzen da: Euskadiko V. Xake Txapelduna nor izango erabakitzen ari dira.

## Erlojua martxan

**A**rratsaldeko 4.00ak dira, hileko lehen egunetik bezala, Abaroa Egoitzako areto batera Euskadik xake jokoan eman dituen jokalaria hoberenak laster hurbiltzen hasiko dira. Jokaldiei egunero 4.15etan ematen zaie hasiera, eta ia hasteko ordua iritsi arte jokalaria bakar bat ere ez da jolastokira agertuko, maniak nonbait. Lau-retatik laurdenetara doan bi-

tartean, antolatzaileek eta epaileek oker egon daitezkeen azken gauzak zuzentzen dituzte, erlojuak eta jokatzeoko mahaiak begiratu eta jokaldi interesgarriena izan daitekeenarentzat pantaila bat prestatuz.


Minutu pare bat besterik ez da gelditzen hasierako ordua izan dadin, eta jokalaria batzuk ageri dira. Hasteko orduan, puntu-puntu erlojuak martxan jartzen dira, jokalaria bertan egon edo ez. Xake jokoan, jokalarien

jarrerak besterik pentsarazi badezake ere, denborak garrantzia handia dauka, ez ordea egin behar dena ondo pentsatzea bestekoa baina badu bere garrantzia.

Jokaldiak hastera doaz. Hasi aurretik, ohi denez eta lege izkutu batek aginduko balu bezala, aurrez-aurre jartzera doazen bi jokalariek elkarri eskua ematen diote. Kirolarien legea, etsaiari bostekoa luzatu onena desiraturuz, baina irabazteko ahalgin guztiak egingo direla adieraziz.

## Peoia aurrera

**X**ake partidari ekin zaio. Oraindik goiz da, ikusle gutxi dago eta jokalaria batzuk ere falta dira. Jokatzeko hasi direnei urduritasuna nabari zaie, batez ere hanken mugimenduan nabaritzen den urduritasuna. Ez-tulen bat edo beste izan ezik, zarata nagusiena erlojuen tik-taka da. Jokalaria gehienek buruari heltzen diote, nolabait behar duten konzentrazio guztia begien au-



Zuriak eta beltzak, jokaldiei hasiera eman aurretik erlojua martxan noiz jarriko zai.



rrean izatea nahiko balute bezala.

Ixiltasunarena jarrera nagusi eta orokorra bada ere, bi joera nagusi nabari dira jokariengan: batzuk fitxa mugitu eta jokoari begira gelditzen diren bitartean, beste batzuk fitxa mugitu bezain laster zutitu eta beste jokaldia ikustera joaten dira, minutu batzuetan euren ahaztu nahirik. Xakea kirolarien joko da, eta hortaz argi dago bat, beste jokaldiren bat ikusteko aldetzen denean, begira dagoenak ez diola iruzurrik egingo. Dena dela, esan behar da horren arriskurik ez



Ikusleak jokaldi interesgarrienen inguruan biltzen dira.

## Xake jokalariei urduritasuna batez ere, hanken mugimenduan nabari zaie

dagoela, jokalaria guztiak aldamenean daukaten paper batean egindako mugimendu guztiak apuntatzen dituztelako.

### Zaldia saltoka

**A**rratsaldea aurrera doan heinean giroa berotuz doa, ikusleen kopurua gehiegi handitu ez bada ere. Hala, eta guztiz, bada bes-

teen gainera bereizten ari den jokaldia eta ikusle gehienak haren inguruan biltzen dira, baita jokalaria batzuk ere. Jokaldi gogorra dirudi eta luze jo dezakeena. Hamarrak arte denbora daukate.

Euskadiko Boskarren Txapelketako antolamendulari lanak aparteko arazorik bari badoaz ere, San Andres Xake Taldeko hainbat lagun lanari esker, bapatean Abaroa Egoitzeko argindarrak huts egiten du eta aretoa ilundu egiten da. Une horretan jokalarien aurpegietan haserre puntua nabaritzen da, baina protestak ez dira gogorregiak. Izan ere, xakearen munduan gutxi dira eta euren artean ondo

eramaten dira. Arrasaterentzat garrantzi handia dauka

Euskadiko jokalaria hobere-nak bertan izatea, eta horregatik antolatzaileak bereziki saiatu dira, jokalaria ere laguntzen saiatzeko direlarik.

### Jake Matea

**I** luntzera doa, jadanik partida gehienak bukatu-tzeaz edo bukatuta daude: batzuk irabazle izango dira, beste batzuk galtzaile, eta beste batzuk berdinduta bukatuko dute. Jokaldia hasterakoan bezala, bukatu-takoan ere aurrez-aurre dauden bi pertsonen eskua ematen diote elkarri, nahiz eta galdu. Norberaren buruarekin ez bada, ez dago inorekin haserretzeko arrazoirik, horixe bait da benetan xake jokoa jake matea, elkarren arteko errespetoa eta kiroltasuna

## Hoberenak hemen dira

**A**ntolatzaileek Euskadiko Xakeko Boskarren Txapelketa hogeitamar jokalarirekin burutuko zela iragarri bazuten ere, azkenean hogeitazortzi dira Abaroan jokatzeko ari direnak. Euskadiko jokalaria hobere-nak bertan izango zirela adierazten zen aurreko alean, eta bi jokalaria gutxiago izateak ez dio txapelketari mailaz jaitea eragin. Izan ere, Txapelketari maila ematen diona ez da jende kopurua, aurkezten den jendearen kalitatea baizik. Zentzu horretan nazioarteko maila duten Mario Gomez, Patxi Gallego, Javier Otxoa, Felix Izeta, eta Rafael Alvarez hemen dira. Aipagarria, horiek duten maila izanda, asteazkenerako bik jokaldia galduta zeuzkaten, beraz berdintasun handiaren seinale.

Horretaz gain, Ipar eta Hego Euskadiko ordezkariak biltzea lortu dela ere, oso aipagarria da.

**AUTO  
ESKOLA**


**ARRASATE**

**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE



# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia






# Finalaren atarian

**Azken kanporaketak jokatu eta gero, Zaldibarko futbito txapelketa lau talderen artean erabakiko da.**

**B**aloiari gogor eutsi behar izan diote Zaldibarren jokatzen dutenek, kanporaketa gainditu eta finalerdietara sartu ahal izateko. Igandeko partiduetan ere gauza bera gertatuko da, finalerako pasea jokatuko da eta.



# JMA JMA



**ILLARRAMENDI**

Geure lantegiak ditugu

Iturriotz 7 bis, Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE

OINETAKOEN AUTO ZERBITZUA

# ZAPATIDOS

Olarte 9, Tfnoa: 79 41 29 ARRASATE





**Ezkiñako Ontzak.** Ezkerretik-eskumara. Zutik: Miguel Angel Azpiazu, Iñaki Arizmendiarieta, Jose Maria Soto, Miguel Angel Mateos. Makurtuta: Alberto Gutierrez eta Luis Gutierrez.



**Zortzikin nahiko.** Ezkerretik-eskumara. Zutik: Jose Luis Lopez, Ignacio Lasa, Jose Luis Uribarren, eta Jon Errasti. Makurtuta: Antonio Jimenez, Pedro, Martin Uriarte, eta Eduardo San Vicente.



**New Laso Arregis.** Ezkerretik-eskumara. Zutik: Juan Mertxan, Fran Fernandez, Jaime Corral, Miguel Angel Fernandez, Isidoro Agredas, eta Javi Gutierrez. Makurtuta: Iñaki Corral, Luciano, Dionisio Barreno, eta Agustin Arregi.



**Danok Lagun.** Ezkerretik-eskumara. Zutik: Jon Ezpeleta, Jose Ramon Zabaleta, Eneko Zabaleta, eta Andoni Zabaleta. Makurtuta: Jose Antonio Terrazas eta Juan Jose Zabaleta.

a.eme.interiores

GARIBAI 9  
20 500 ARRASATE  
(GIPUZKOA)  
Tlfnoa: 943-791503  
Telefax: 791489





Penaltiaren garaia, partidua erabaki dezakeen jokaldi garrantzitsua. Ikusle eta jokalari guztien begiradak atezaina eta jaurtizailearen gainean pausatzen dira. Bata edo bestearen azkartasunak jokaldiaren emaitza erabat alda dezake.

**OPEL**   
Hobeak esperientziaz

**TALLERES OLA, S.A.**  
Erakusketa Arrasaten:  
Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86

  
**Kafetegia**

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

## EMAITZAK



### Kanporaketak

Zuloak 3 .....	Argi Ibili 3
Penaltiz Zuloak saikatu	
Artzankos 4 .....	Sum. Ind. Ugarte 0
Adelaida 7 .....	Cameruns 4
Luzapenean Adelaida saikatu	
Arrasate Kirolak 2 .....	Bar Kajoi 4

## ATEZAINAK

*Jesus Moreno Saria*



**Javier Murguzur.**  
**11 gol.**

**ALCANADURA**  
**TABERNA**

**ZENBAKI  
SARITUA:  
52.163**

## Ebaki eta gorde txartel hau!

Trikitik eta Kajoi tabernak Walkman bat zozkatuko dute astero. Astero aterako da zenbaki bat, eta saria jasotzeko epea 6 egunekoa izango da.

Sariturik agertu ezean, hurrengo asterako gordeko da saria, eta antzeko sariren batekin trukatu ahal izango da Trikitin.

*Trikiti*

**SOINUA • BIDEOA • T.Ba • KOMUNKAZIOA**

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

54751





# Txutak

## Igandean finalerdiak

Zaldibarko Futbito Txapelketako kanporaketetan sorpresa ugari eman ziren, aurreko asteko komentarioan faboritotzat jotzen ziren bi talde kanpoan gelditu dira eta. Kanporaketak partidu bakar batera jokatzek horrelako ondorioak ekartzen ditu. Ez *Argi Ibilik* eta ezta *Suministros Industriales Ugarte* taldeak ere, ez zuten kanporaketa horiek jokatu arte, partidu bakarra galdu, eta momentu txarrean galtzea egokitu zaie.

Emaitzei begiratuaz gero, argi ageri den gauza, berdintasunarena da:

*Adelaidak* 7 eta 4 irabazi zion *Cameruns*-i, baina luzapena jokatu ondoren, eta *Argi Ibili-Zuloak* taldeen arteko partidua berdinduta bukatu zenez, luzapena jokatu ondoren penaltitara erabaki zen, *Zuloak* taldearen alde.

Sorpresak etortzen direnez, hobe da faboritorik ez aipatzea. Dena dela, aipagarria da *Adelaida* eta *Bar Kajoi* taldeek, datorren igandeko finalerdietan egongo direnek, bigarren faserako sailkapena ere ozta-ozta lortu zutela. Beraz, argi dago urruti iritsi direla. *Artzankos* eta *Zuloak*-ek ez zuten arazorik izan bigarren faserara iristeko, bai ordea kanporaketetara. *Artzankos*, esaterako, erreklamazio baten ondoren sailkatu zen.

## DATORREN ASTEBURUAN

### FINAL ERDIAK

Zuloak ..... Adelaida  
Artzankos ..... Bar Kajoi

### GAINONTZEKOAK

*Cameruns*, *Arrasate Kirolak*, *Argi Ibili* eta *Suministros Industriales Ugarte* taldeek boskarrenetik zortzigarreneara arteko postuak jokatu dituzte.

## GOLEGILEAK

### Mikel Otxoa Saria



Elizaran

Jose Martin Elizaran (*Argi Ibili*). *Argi Ibili* taldea txapelketa guztian zehar gol gehien egin dituen taldea izan da. Beraz, ez da arraroa goleatzaileen sailkapeneko buru bertako jokalaria izatea. Taldeari eskertu beharko dizkio lortutako golak.

# JOMA

JOSE MARI GALLASTEGI Y CIA. S.A

Gipuzkoa Etorb. 32,  
Tfnoa: 79 16 55 ARRASATE

# UDALAITZ

## TABERNA



## SAN ANDRES AUTOAK

Araba Etorbidea 13,  
Tfnoak: 79 95 22 / 79 53 98  
ARRASATE



Gema eta Mari Pili

## Portaloiko ilusio-saltzaileak



**P**ortaloiko izkina batean ikusiko dituzu egunero ama-alabak, kupoiak saldu eta jendearekin berriketan. Mari Pili itsua da, eta ama izaten du lagun, eguneroko ogia irabazteko lanbide gogorrean. Emakume bi hauek kupoia saldu egiten dute, baina euren irrifarreak ez du preziorik.

Gema Burgoskoa da izatez, eta orain 32 urte inguru etorri zen Plus Ultra taberna lanera. Gero arrasatear batekin ezkondu zen. Oraintxe dituzte zilarrezko eztaiak, baina ospakizuna familia guztiarena da eta horregatik ez dute senarrak eta biek bidaia berezirik egingo, "Nora joango naiz, nire zoriona Mari Piliren ondoan izanda?" Oporretan denok batera joango gara, ezta Pili?" Alaba zaharrena da Mari Pili, birkitakoa, eta bete berri ditu 23 urte. Atzetik beste hiru mutiko datoz. Etxeko butakan eserita, urduri samar ikusten da, ezezagun batekin hitz egin behar duela eta, baina amaren hitz jario erraz eta atseginak lasaitasuna ematen du. "Orain lau urte hasi zen Pili kupoiak saltzen, eta oso pozik gaude, bere buruaz baliatuz, soldata irabazten duelako". Lana gogorra da, ezin uka. Goizean goizetik, uda eta negu, egon egin behar da Portaloiko izkina hotzean! baina euren lana da, Pilirena hobeto esanda. "Jende askok esaten dit ia zergatik ez dudan neska etxean utzi eta neuk saltzen. Ez dute ulertzen. Bere lana da, gogorra izan arren. Ezin duzu pentsatu zenbaterainokoa den zenbaiten ankerkeria. Alabaren kontuarekin soldata ederra ateratzen dudala ere entzun behar izan dut... Ez diot nire etsairik

handienari ere opa". Zeharo minduta gogoratzen ditu Gemak horrelakoak, baina argi dago: beretzat Pili ez da arazo bat, bere alaba da. Bereberea, eta betidanik atera izan du kalera, inoiz ez du izkutatuta eduki, "ni afaltzera banoa, bera ere bai". Horregatik ez du ulertzen antzeko egoeran bizi diren gurasoen jarrera, lotsatu egiten da haien lotsaz, eta ezin du euren artean egoterik jasan. "Seme-alabak ez ezik, gurasoek daukate sendatzeko premia"

Burmuineko lesio batek eraginda geratu zen Pili itsu neskatilatan, lau urte inguru

zituela. Bere begiekin beste edonork ikusi ahal izango luke, baina bista eta ibiltzeko ahalmena harrapatu dizkio gaitzak.

Kalean denetik ikusten bada ere, orokorrean jendea umore txartuta bizi dela erizten dio Gemak. "Ehuneko 90ak ez du gauza negatiboetan baino pentsatzen. Zorigaiztoak kontatzeari ekiten diote: halakok minbizia duela, bestea lan barik dagoela... zergatik ez didazu atzoko afariaz hitz egiten? galdetzen diet. Dagoen hartzarekin eta horrelako umorea?, galdetzen didate. Ho-

tzaz egoteaz gain umore txarra eduki behar al dut?"

Kalean oso ezagunak dira Pili eta bere ama eta erostera datorrenari zein pasadan agurtzen dituenarekin, kontu kontari jarduten dute. "Dirurik tokatzen ez denean niri botatzen didate errua, dio Gemak barrez, Mari Pilirekin ez dira sartzen, ez diote haserterik egiten, nagusia bera izan arren". Arrasate nahiko ona omen da saltzeko, azkenaldian jaitsi eta saltzaile kopurua gehitu egin bada ere.

Pili pozik dago erakundeak ematen dion laguntzarekin, baina batez ere lan egiteko duen aukerarekin. Braille sistema erabiliaz idazten eta irakurtzen ikasi zuen, eta etxeko makintxoarekin saio luzeak egiten ditu. Arratsaldero, lana bukatutakoan, etxeko bizikletan egiten du ekinaldia, eta neguan ez arren, gimnasia ere egiten du. "Gauza asko daude egingo nituzkeenak", erantzuten du bere zaletasunez galdetzean. Lana baduenez, berak bakarrik lan egin ahal izatea gustatuko litzaioke, eta ibiltzea, oinez kalera irtetea, batez ere. "Ahizpari alde guztieta jarraitzeko gauza izatea...". horixe du amets. Lagunekin ere ez da askorik egoten eta erlaziorik estuena, bere lagun onenarekin du: amarekin. "Erlazio handiegitxo ere badugula erizten diot, ezin dut une batez ere bere albotik alde egin", esaten du Gemak. Aste gutziko lanaldi neketsua amaitzearekin, asteburuko irteerarako prest jartzen da familia osoa. Errioxako kanpingean ematen dituzte asteburuak, askatasunean. Arrasateko kaleetako zaratatik alde egiten dute, hurrengo asteko lanari umorez eta ilusioz ekiteko.

“

Gauza onetan pentsatu beharrean, alde txarrera begira bizi da jendea



## Igeriketa: aukera desberdinak eskaintzen

*Aletadun igeriketa gorantza doan moduan, igeriketa klasikoan ia ez dago jenderik*

Duela pare bat aste Arrasateko bi igerilarik lortutako tituluek, Estatu mailakoek, igeriketarako jakin nahia piztu dute, hortaz, horra ondoren gaurko Arrasateko Igeriketa taldearen berri.

Arrasateko Igeriketa Taldean, gutxi gorabehera ehun eta berrogeitamar neska-mutiko dabilta. Ez dira ez haur gehiegi, baina hala ere egiten duten lana ezin da gutxietsi, herriaren izena hortik zehar zabaltzen dutelako eta nohiz behinka tituluren bat ere lortzen dutelako. Dena den, Igeriketa Taldean gauzak ez doaz batera, hau da, aletadun igeriketa gorantza doan bezala, edo behar bada azkarrago, igeriketa klasikoa beherantz doa.

Juan Ignacio Errasti, Igeriketa Taldeko entrenatzailetariko batek zioenez, igeriketa klasikoaren behe-



Azkenaldian Arrasateko lorpen hobereenak aletadun igeriketatik etorri dira.

*ta konpetizioari begira erakusten zen eta ondorioz entrenamenduak oso gogorrrak zireñ. Gaur egun, ez diogu konpetizioari aparteko garrantziarik ematen; bai ordea, umeen heziketari. Alde horretatik, igerilari onen bat ateratzen bada, primeran, eta ez bada ateratzen, ez da ezer gertatzen”.*

Hasieran esan bezala, ehun eta berrogeitamar ume dira Arrasateko Igeriketa Taldean dabilzanak, hainbat kategoriatan banaturik. Haur guztiei, hasieran, igeriketa klasikoa erakusten zaie eta

gero, indartzen direnean, aletadunean aritzeko aukera eman. Hamalau urtetik gorako umeen artean, igeriketa klasikoan dabilzanak bakarrik bost direla esaten bada, argi dago aletadun igeriketarako arrakasta handiagoa duela.


Mikel Morrás txikiaren entrenatzailea, Juan Ignacio Errasti hamar urtetik hamalau urtera arteko umeen entrenatzailea, eta Carlos Conde hamalau urte baino gehiago daukatenean entrenatzailea dira Arrasateko Igeriketa Taldeko arduradunak.

nak.

Igeriketa bera alde batera utzirik, Igeriketa Taldeak orain artean aurrera darabiltzan beste bi ekintza aipagarriak dira. Alde batetik Asier Zubillagak eskaintzen duen ikastaroa, IVEFen sartu nahi dutenak prestatzeko ikastaroa hain zuzen, hama-bosteren bat gazte bertan dabiltzalarik. Bestetik, nesken saskibaloia taldearekin orain artean egindako lana, datorren urtean Arrasateko Saski Baloia taldearen menpean egotera pasatuko den taldea alegia.

### Konpetizioak ez dauka aparteko garrantziarik

rakadaren arrazoi nagusiak motibazio ezean eta harrobia ez berritzean oinarritu beharko litzateke. “Garai batean, -zioen Juan Ignacio Errastik- Arrasaten igerike-



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak  
Otzaratzarrak  
Giltzak gordetzeko armairuak  
Erremintak eramateko gurdiak  
Erremintak gordetzeko armairuak  
Lan egiteko aulkiak



Eskaiola, pintura eta kortexozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75  
ARRASATE



SONIA

TXAPARRO

*Estatuko Txapelduna aletadun igeriketan*

PODIUMA



Aletadun igeriketan Estatuko txapelduna izatea lortu badu ere, Sonia Txaparrok bakarrik bi urte daramatza igeriketa munduan. Aurrekoa kontuan hartuta, argi dago hamazazpi urte dituen Sonia Txaparro ondo baino hobeto moldatu dela hango eta hemengo igerilekuetara. *"Hasieran, aletarik gabeko igeriketan ibili nintzen, baina emaitza onik lortu gabe, Arrasaten, alor horretan, ez dagoelako behar bezalako antolamendurik. Ondorioz, aletadun igeriketara pasatu nintzen, eta oso gustora nabil, emaitza onez gain, giro ezin hobea dagoelako"*.

Igerilekuetan burutzen diren froga laburretan ibiltzen da arrasatearra, abiadura bait da ur gainean erakusten duen ezaugarriarik nabariena. *"Froga laburretan, esaterako 50 metroetan, ari naiz ondoen. Hori baino froga luzeagoetan ez naiz hain ondo ibiltzen, nekatu egiten naiz eta"*.

Aletadun igeriketan giro bikaina aurkitu badu ere, Soniari askotan oso gogorra egiten zaio kirol honetan aritzea. *"Egunero eskolatik atera eta gero, hiru orduz entrenatzera joatea gogorra da. Igerian gustora ibiltzen naiz, baina horretaz gain hain goza-*

*garri ez diren beste gauza batzuk ere egiten ditugu, gimnasia esaterako.*

Hori gutxi balitz, kirolari egunero hiru ordu eskaintzeak eragina dauka ikasketetan. *"Azkenean beti aprobatazen dut, baina gorriakikusi ondoren"*.

Nahiz eta askotan eguneroko lana gogorra eta desatsegina izan, Soniak ez dauka igeriketa alde batera uzteko asmorik, bere konpentsazioak badauzka eta. *"Igerilekuan entrenatzen pasatutako orduen ordaina txapelketetan dago, ez irabazita ere. Irabaztea sari handia da, baina lagun berriak egitea eta baita toki berriak ezagutzeak bere garrantzia daukate. Alde horretatik, Erroman burutu ziren munduko txapelketak onuragarriak izan ziren. Kirolari dagokionez, ez genuen apartekorik egin, taldeen sailkapenean 40tik 14.ak izan ginen eta bakarrikogorretan ezer gutxi egin genuen, baina hala ere esperientzia polita izan zen"*.

#### ◆ Mondrak berdindu

Sodupe taldearen aurka jokaturako partiduan Mondrak banako berdinketa lortu zuen, era horretan zituen hiru negatiboetatik bat han utzi zuelarik. Partidua ez zen oso ona izan, batez ere futbol-zelaiaren egoera penagarria zelako, eta inork irabaztekotan Mondrak irabazi behar zuen, aukera gehiago eta hobeak egin zituelako, baina aprobetxatu gabe. Igandean Getxon jokatu beharko dute mondragoetarrek eta gutxienez berdinketa lortu beharko lukete, gero Hernaniren bisita lasaitasunez jasotzeko.

#### ◆ Roldan selekziora

Iñigo Roldan atxabaltarra Estatuko gazte mailako selekzioaren konzentrazioa deitu dute. Atxabaltarrak gogo handiz ekin dio denboraldiari eta oso ondo ari da. Joan den asteburuan Antzuolan burututako frogan zazpigarrena izatea lortu zuen. Lasterketa guztian zehar, atxabaltarra aurreneko postuetan ibili zen, baina esprintean arabarrek oso ondo markatu zuten eta ezin izan zuen lehen posturako borrokatu. Lasterketa honetan bertan, Ruben Ramosek hamargarren postua eskuratzera lortu zuen.

#### ◆ Kluben arteko pilota txapelketa

Gipuzkoako taldeen arteko pilota txapelketako liga bukatu da, eta orain kanporaketak jokatu dira. Arrasateko Klub-ak laugarren postua lortu du bere taldean, eta ondorioz zazpigarren postu orokorrerako jokatu beharko du Segurako taldearekin. Txapelketa honetan 22 taldek hartu dute parte. Aipagarria da maiatzaren 5ean herrien arteko pilota txapelketari emango zaiola hasiera. Argi dagoenez, pilotariek ez dute atsedunik.



## ERAÑA AHOLKULARITZA

### OROTARAKO ASEGUURUAK

Kontzezino kalea 4, behea Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE



## Gazteak eta euskara

**A**skatuko zaituen za bazaude, zaudela lasai"! dio Mikel Laboak aspaldiko diska batean. Guztiok uste baldin badugu euskararen normalizazioa besteek egingo dutela arreglauta gaude, egon gaituzen lasai baina euskarak gaurko egoera mixerablean jarraituko por sekulorum sekulotan, edo, hobe esanda, lehenago hilko da.

"*Haien legea guretzat (n) apartheid, gartzela, ihesa ohospena eta ixiltzea*" diote Hertzainakoek, "erdera" eresar lezakete kantaren estribiloan; "*haien legea zu ta ni euren gisara bizitzea*" jarraitzen dute. Gaur egun,

gazteak gara euskaraz gaitasun gehien daukagunak, euskaraz ikasi dugu askok eta askok eta euskaraz egin ahal dugu nahi baldin badugu. Zer gertatzen da orduan? Ez digutela uzten maitasuna egiten gauetan, edo ez dugula egin nahi? Hau da: zenbateraino ez digute euskaraz egiten uzten eta zenbateraino egin nahi dugu guk? Eta kantekin hasi garenez, kantekin jarraituko: "*Askatzaile geu gara*" esaten zioten Gontzal eta Mendibilek garai bateko gazte jendeari. Oihu honek ez du batere gaurkotasunik galdu: edo geuk askatzen dugu geure hizkuntza erderaren hatzparretatik ahalik eta azkarren

edo ez du beste inork egingo.

Geuk ez badugu euskaraz bizi ahal izateko ahaleginik egin nahi, zertarako ikasiko dute ez dakiten gazteek, zein nolako motibazioa izan behar dute euskara ikasteko dakitenek erabiltzen ez badute?

Errepikatu ohi da "la edad del pavo" oso berezia dela,

gazte jendeak edade horretan beste burukomin handiagoak izaten dituela euskararena baino, edozein modutan, tristeena da edade hori pasatu eta oraindik ere gazte jende asko ez dela erderaren errektoretik jeitsi, apurka-apurka besterik ez doan euskeraren karretilara igotzeko.

Erreaktorean ezer egin gabe joatea oso erreza eta, karretila, berriz, eraman beharra dago.

Euskarak merezi du karretila mixerabletxo bat baino gehiago, edo? Geu gara obraren injineruak, beraz; edo bestela ez dago obrarik eta ez da behar injinerurik.



Atalataikoan



## HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaragoza kalea 10, ARRASATE

Tfn. 945 21 80 00

Fax

Getxoko Industrial Poligonoa, 24, BILBAO

Tfn. 944 21 00 00

Fax




# Batuta

## Kristobal Arejolaleiba

Hamabost urterekin hasi zen Kristobal soinua ikasten Gardokirekin, "berandu samar aukeran". Baina betidanik izan du soinua jotzen jarduteko ametsa, eta gaztetan ordu asko sartu bazituen ere, kontatako ahaleginak merezi izan duela esaten du zalantza barik. Bazkari-afarietan, ezkontzetan, jaunartzeetan, erromertan ibili izan da orain arte batez ere, eta bakarrik ibili ere. Orain berriz, bateria jotzen duen lagun batek eta biek entseuak egiteari ekin diote, talde erara jotzen hasteko.

Denetarik jotzen du, "baina herrikoiakbatez ere. Jendeari gustatzen zaizkionak jo behar izaten dira, eta psikologoa ere izan behar du musikoak, entzule bakoitzari zer gustatzen zaion asmatu egi behar da, eta halakoa jo. Momentu bakoitzean, bestalde, irten ahala kanta berriak ikasiaz joan beharra dago. Afalondo eta bazkalondoetan valsak eta tangokak jotzen ditut gehien, jendeak eskatu egiten ditu eta". Gustoren despedida, jaunartze eta antzeko ospakizunetan jotzen du, eta nola ez, "jendea dan-



*izarako gogoz eta umoretsu ikusten denean. Norberaren umoreak ere badu eraginik, baina jendea dantzan eta gustora ikusitakoan, norbera ere pozik. Beste bat eta beste bat eskatzen didatenean izaten da polita".*

Bakarka entseiatu beharri aspergari samar erizten dio, eta orain lagunarekin ari denez, dibertituago egiten da, batak besteari zuzendu eta aldaketak egitea. Saio kopuruari buruz, berriz, maiatza izaten omen da oparoena, "primera komunioengatik eta", eta horrekin batera gainerako afariak noiznahi. "Normalean hilean sei bat afari izaten ditut lanerako". Musika aldetik profesional izatea, hala ere, oso zail ikusten du, bere burua ezagutu eta dituen gaitasunez segurtasunez hitz egiten du eta. "berriz musikal ona daukat, baina horretatik bizi ahal izateko dedikazio handia izan behar da..."

**Norbera jotzen eta jendea dantzan ikustea bezalakorik ez dago**


## Txio txioak

### ■ Arrasate Abesbatza Galesen

Azken berriek ziotenez, Arrasate Abesbatzari Galesera egiten ari den bidaiak ezin hobeto doakio. Llanelly, Carmarthen eta Newcastleko Katedralean kontzertuak eskaini ondoren, oso ondo hartua izan da Arrasateko kantarien lana. Arrasatearrek, egindako programaren arabera Stanley hirian ere kontzertua zeukaten, baina azkenean bertan behera gelditu zen. Galesera joan diren larogetitamar lagunak bihar bertan itzuliko dira Euskadira.

### ■ Kantaldia

Aretxabaletako Beinke taldeak antolatuta datorren larunbatean, hilak 13, gaueko 10etatik aurrera Zairaia zineman, Xabier Lete eta Antton Valverdekan kantaldia eskainiko dute.



### ■ Txelo Talde Iberiarra

Elias Arizkuren zuzentzen duen Txelo Talde Iberiarrak, joan den astean Jose Migel Barandiaranen "Sara" base-riaren aurrean kontzertu txiki bat eskaini zuten, era horretan Barandiaranen bizitza nolabait omenduz. Patrizia Esparza arrasatearra, aipatutako Txelo taldeko partaidea da.



## ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



# Alfabetizazioa dela eta (IX)

## Orkatz Scout Taldea

**O**rkatz Scout taldea gazteei zuzendutako taldea da, 9/10 urtetik aurrera. Aisialdia edo denbora librean lantzeko taldea da: berei gustatzen zaizkien ekintzekin denbora betetzeko posibilitateak eskaini nahi dizkiete neska mutilei.

Heziketa-taldea da eta bere kideen artean zenbait balore garatu nahi du: erantzule izatea, inizatiba eta autonomia edukitzea, naturarekiko interesa eta gustoa edukitzea, kritikoa izatea.

Horretarako 9 eta 18 urte bitarteko neska-mutilak talde ezberdinetan antolatzen dira, bakoitzak bere adinari



eta gustoei dagozkien ekintzak burutzen dituelarik:

- Koxkorrak eta kazkondoak.

9 eta 11 urte bitarteko neska mutilak dira; batez ere jolasek eta eskulanez betetzen dute hauen denbora

scout taldean.

- Oinarinak.

12 eta 13 urte bitarteko neska-mutilak dira; taldeak berak, arduradun edo monitoren laguntzarekin, "abentura" deiturikoa sortu eta bizitzen du: talde osoak zerbait egiteko konpromezua

hartzen du eta horren inguruan trimestreko aktibitateak antolatzen dira. Beti praktikoa eta denon partizipazioa eskatzen duen zerbait izaten da abentura.

- Azkarrak.

14 eta 15 urte bitarteko neska-mutilak dira; taldeak berak, arduradunaren laguntzarekin, egin beharreko "enpresa" asmatzen du: zer egin, nola egin, zer baliabide dituen eta behar dituen pentsatu behar du. Denen partizipazioa eskatzen du "enpresak", ahal den neurrian naturarekin zerikusirik edo beroni buruzko zereginen bat izaten delarik.

(Jarraituko du)  
Klarion Taldea

Daniel Lasagabaster

# TXANPA

## Motor hau ZUREA izan daiteke

Zure erosketak TXANPAN egiten badituzu, guk emango dizugun txartelaren numeroak uztailaren 9an egingo den ONCeren zozketako lehen sariaren azken bost zenbakiekin bat badatoz, YAMAHA motor eder honetan irtengo zara.

Sartu barrura, irten motorrean


Yamaha Artistic Sec Jog



## • Begoña Etxebarria •

Musakolako gasolingeikoa


**B**egoña Etxebarriak normalean bere ahizparen GSa erabiltzen du, eta gustora dago berarekin. "Ez dut sekula istripurik izan, ezta aberiarik ere, eta hori autoak 14ren bat urte badituela". Gidatzea ez zaiola gehiegi gustatzen aitortzen du. "Karneta ateratzeko amorru bizia nuen, baina orain ez zait atsegina egiten. Karneta ateratzerakoan, ez nuen batere ondo pasatu, eskuinera esaten zidan eta nik ezkerrera.3.ean atera nuen". Orain ordea, Begoña gidari ontzat har daiteke, istripurik ez edukitzeaz gain, multarik ere jaso ez duelako.



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58




P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE



## “Castillan ere edurra”

**G**redos izeneko mendikatea “Sistema Central”-eko adar bat da, Avila eta Cuenca probintzia artean kokatua. Extremadurarentzat oso garrantzitsua da mendikatea, Tormes ibaia eta Dueroko hainbat ibaiadar bertan jaiotzen direlako. Erreserba naturala da, landaretza eta faunagatik (3.000tik gora basautz daude). Besaide Mendi Elkartek San Jose zubia pasatzeko asmoz bidaia antolatu zuen inguru horretara. Zapatu goizean irten, eta sei orduz bidean ibili ondoren “plataforma” deitzen zaion toki batera heldu ginen. Helduaz bat, etxeko



zapatilak granpoi bihurtu zitzaizkigun; edur asko eta gogorra zegoen. Plataformatik, bi ordu t'erdian inguruko bidea egin ondoren aterperaino heldu ginen. Aterpetik ikusten ziren gailurrak begiratu zahartu ginen aukera ugari eta

zabalak eskaintzen zigula paraje hark. Igoera zailak alde batetik (izotz eskalada) eta ez hain harriskitsuak bestetik. Igande goizean “Almanzor” izeneko gailurrera abiatu ginen laino sendo eta hai-

ze gogor artean. Susto ederra hartu genuen, gutariko bat jausi eta irrista bizian beharuntz joan zelako, baina sustoa baino ez zen izan. Hurrengo egunean, belainoaz esnatu ginen baina mendiruntz igo ahala, zerua garbitzen zihoan, eguzkitsua eta urdin bihurtu arte. Kasu honetan, gogoan eduki behar dugu, zenbaki haundiko protektorea sarritan eman behar dela, bestela gure azala karramarroena bezain gorria bihurtuko da eta.

Zorionak Besaideri irteeragatik, leku zoragarri bat ezautzeko aukera eman zigulako.

Hankamotz

# Guk ere ikasten dugulako, kalitatez irakasten dugu.

**Formazio saio bat egiten ari garenez, eskolak hilaren 9an hasiko dira berriro.**




*Mondragonesa Grafikagintza*

**Paperdenda. Mahaigaineko tresnak**

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

**“EDERTU”  
ileapaindegia**



San Andres auzoa 79 04 28



# Indarberritu den lehoi arrasatearra



■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahi lituzke.

• 1929.ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze sasoi heldu zaio.

• 1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**-rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m<sup>2</sup> koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihar-  
du, produktu berrietan sartzen, aukietan batez  
ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzial-  
izazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia  
inportatu bazuen ere orain produktuak esporta-  
tzen ditu.

**RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.**

**RONEO UCEM**

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza



Aste gazte

Gazteria ez da bakarik adinak finkatutako populazio-estratu bat. Ezta ere bizitzaren aurreko jarrrera bat ("espíritu gaztea" deritzona, errealitatearen sentimendu jakin batez, emozio-egoera batez, balorazio batez, etab.). Esan dezakegu gazteria egoera sozial konkretu bat bizi duten pertsonen multzoa dela: haurtzarora pasatu dute -familiarenganako dependentzia-, baina oraindik ez dira heldutzat hartzen, edo ez dute helduen bezalako bizimodurik.

Gerardo García  
(Soziologoa)



tza: matrikula doan. Epea: apirilak 30.

Topaketak

• Euskal Zinema eta Bideo Topaketa. Zestoa 1991. Euskaraz. Gai libre. zuri-beltzean edo koloretan. Filmak: super 8 eta 16mm.tako laburmetraiak; Beta, VHS edo U-matik erakoak. Lan hautatuek honako dirulaguntza hauek jasoko dituzte: a) SI filmeek eta bideoek 50.000 pta. b) 16 mm.tako filmeek 70.000 pta. Lanak aurkezteko epea: apirilak 16.

Ikastaroak

• Adierazpen Ikastaroak (Hezibide Eskola):

a) "... ginela jolasten dugu" Egunak: apirilak 13-14, 20-21. Tokia: Larraul. Matrikula: 6.000 pta.

b) "Altzor bat zakarrontzian", egunak, tokia eta prezioa: berdinak.

c) "Martxan jartzen badugu?", egunak: apirilak 26, 27 eta 28. Tokia: zehaztu gabe. Matrikula: 6.000 pta.

• Jolasen Ikastaro monografikoa. Egunak: apirilak 13-14. Tokia: Tolosan. Matrikula: 1.500 pta.

aurkezteko epea: maiatzak 10.

• "Guardo" Nazioarteko XX. Ipuin-lehiaketa. Gaztelaraz, gai libre. Lanek, gehenez, lau orrialdekoak izan behar dute. Saria: 100.000 pta. eta Guardoko (Palencia) keramika-lan bat. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 10.

• "Feria de Albacete" Kartel-lehiaketa. Gai eta teknika libreak. Neurriak: 0,65 x 0,94. Sari bakarra: 350.000 pta. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 31.

• "Santa Lucia 1991" Argazki-Lehiaketa. Gai libre. Zuri-beltzean. Sariak 1.) 75.000, 2.) 50.000, 3.) 25.000 eta 75.000 bilduma onenari. Epea: ekainak 1.

Bekak

• "Censolar" bekak, eguzki-indarraren instalatzaile diploma lortzeko. Eskatzaileak: BBB, LH edo ikasketa baliokideak dituzten 18tik gorakoak. Dirulagun-

Auto-stop

\* Donostiako Tandem kultur elkártearen bidez autostopistak eta gidariak harremanetan jar daitezke, bidaia batera egiteko. Triunfo kalea, 4. Tfnoa: 46 93 70.

Lehiaketak

• Urretxuko Pop Jaialdia iragartzeko kartel-lehiaketa. Koloretan, teknika libre. Sariak: 30.000 pta. eta 15.000 pezetako akzesit bi. Lanak

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,  
77 00 65

ANALISI KLINIKOAK,  
LABORATEGIA

I. Laborra Erdozain

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)  
GINEKOLOGI KONTSULTA

Zerkaosteta 17, etxebehea, Tfnoa: 79 20 18  
ARRASATE

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96  
Telefax: 793412

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI 3,  
Tfnoa: 79 87 74 ARRASATE



## ETXEBIZITZAK

- 28 m<sup>2</sup> ko lokala saltzen da oso merke. Edozein motatako negozioa jartzeko. Interesatuak dei egin 94 - 682 04 83 tfnora. Astearte-larunbata bitartean, 9etatik 1era. Aukera interesgarria!
- Logela alokatzen da bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- Etxebizitza salgai Zarugalde kalean. Garajea eta ganbara. Guztiz berria. Tfnoak: 77 09 33 eta 79 04 69.
- Errenteria aldean lan egin behar dut; etxebizitzaren batean logela librerik ezagutz gero, deitu 79 24 66 tfnora. Kepa.
- Arrasaten erdialdean etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela eta ganbara. Garajea aukeran. Tfno. 79 95 46, gaueko 8etatik 10ak arte.
- Etxebizitza salgai Zaldibarren, berritua eta prezio onean. 78m<sup>2</sup>. Deitu konpromezurik gabe 77 12 22 tfnora., gaueko 9etatik aurrera.
- Arrasaten neska edo mutila behar da etxebizitza konpartitzeko. Deitu astelehenerik ostiralera gaueko 8.30etatik aurrera. Tfnoa: 77 08 90.
- Aretxabaletan edo Arrasaten etxebizitza alokatuko nuke. Tfnoa: 79 01 00. Jose Luis.
- Bilbon etxebizitzaren batean logela librerik ezagutzen baduzu, deitu 76 16 68 tfnora.
- Bi oheko logela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.

## LANA

- Andrak etxeko lanak egingo lituzke, orduka. Tfnoa: 79 15 56.
- Emakumea behar da Gasteizen etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: (945) 23 29 74 (gauetz).

- Kimika klaseak hartuko nituzke (1. Injinerutza) Tfnoa: 80 12 54.
- Hiru gaztek buzoneoa egiten dute Oñatin 3 ordu t'erditan. Tfnoa: 78 07 72.
- Etxez-etxe drogeria produktuak -bizarra kentzeko labanatoak eta makinilak- saltzeko jende bila gabiltza. Argibide gehiago 76 60 00 tfnoran.
- Neska euskalduna behar da Gasteizen etxeko lanak egin eta hiru urteko umea zaintzeko. Deitu 20.00etatik aurrera 945 - 23 01 05 tfnora.
- Neska prest etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 49 05
- Emakumea etxeko lanak eta umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 65 83.
- Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 87 88
- Pertsona kualifikatua behar da nutrizio programak saltzeko, 23 urtetik gorakoa. Dei egin arratsaldeko 3.30etatik 7.00etara 77 14 81 tfnora. edo joan Nao de Santiago kaleko 4. era.
- Matematika eta teknologia klaseak hartuko nituzke. (2. REM euskaraz). Deitu 12.00etatik 18.00etara edo 20.30etatik aurrera 79 46 84 tfnora.

## SALEROSKETAK

- Furgoneta isotermikoa salgai eta berarekin lan iraunkorra izateko aukera. Deitu 9.00etatik 12.00 etara 94 - 17 24 16 Tfnoa..
- 50ko anplifikadorea ona eta merkea saltzen da. Probatu nahi baduzu deitu 79 03 69 tfnora.
- Polk-audio markako HI-FI: bi baffle salgai, goi mailakoak (SDA CRS+). Interesatuak dei 79 47 90 tfnora. Jabi.
- Seat Ibiza CLX ia berria saltzen dut. Lau urteko. SS-AB. Interesatuak dei egin gauetz 79 24 01. Zele.

- Adria-Optima karabana salgai. Tfnoa: 79 69 60. Gomez.
- Orbea karreretako 54 tallako bizikleta egoera onean salgai. Entrenamenduetarako rodiloa eta arropak (Lagun Arokoa eta estreinatuta barik) guztia 20.000 pta.tan. Deitu iluntzeko 8etatik aurrera 79 90 03 tfnora.
- Aretxabaletako Kultur Etxeak motoreta erako lau bizikleta eta zortzi irristola erosi nahil ditu, denak bigarren eskukoak. Tfnoa: 79 01 05 lan orduetan.
- "Data o Tone" organo elektrikoa salgai. Berria eta prezio onean. Inyeresatuak dei egin: 79 80 55 tfnora. Gauean 8.15etatik aurrera.
- "Mascot" walkie talkie parek salgai. Berriak eta prezio onean. Interesatuak dei egin 79 80 55 tfnora. Gaueko 8.15etatik aurrera.
- Bost laguntzako kanping-denda salgai. Aluminiozko hobiak. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.
- "Arcón -congelador" ea salgai. Aproposa etxean edukitzeko edo edozein produktu izoztua gordetzeko. Aukera ezin hobea (sei hilabetetan erabilia bakarrik). Interesatuak dei egin astearte eta ostiral bitartean 94 - 682 04 83 tfnora. goizez bakarrik.

## DENETARIK

- Bi kirolari gara eta Gasteiztik Arrasatera elkarrekin etortzeko lagunak behar ditugu, asteazken eta ostegunetan, 21.30etan gutxi gorabehera. Interesatuak dei egin 79 65 83 telefonora eta isabelez galdetu.
- Kaixo K.P.A! Toke ederra bideoarena hil Honelakoak sarrago egin beharko zenituzkete zuen talento artistikoa plazaratzeko. Hemengo emakumeek liluraturik geratu dira Euskadiko mutilak ikusiaz, baina egia esan, emakumezkoak aktorea lana hobeto egin dute, dudarik ez! Laster arte, gorantziak danori. Miren Hamburg.



## ARRASATEN HILDAKOAK



Elvira Tapia Teofilo,  
martxoaren 20an. 88 urte.

Beitia Uribe Josefa,  
martxoaren 21ean. 80 urte.

Francisco Perez de la Cuevas Casimira,  
martxoaren 23an. 77 urte.

Agote Urain Concepción,  
martxoaren 27an. 74 urte.

Urain Agote M. Consolación,  
apirilaren 1ean. 65 urte.

Etxebarria Zeziaga Maria,  
apirilaren 2an. 80 urte.

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15



# Zer nahiago?

## Jose Manuel Alvarez Langilea



- **Sanba ala lanbada?** Beti sanba.
- **Egunez ala gauez?** Gauez.
- **Hitz egitea ala entzutea?** Biak gustatzen zaizkit.
- **Autoak ala motorrak?** Autoak.
- **Aldizkaria ala egunkaria?** Aldizkaria.
- **Haragia ala barazkiak?** Barazkiak. Ez naiz barazkijalea baina gehiago gustatzen zait.
- **Kafea ala tea?** Kafea, tea ez zait gustatzen.
- **Xakea ala billarra?** Billarra.
- **Alkandorak ala kamisetak?** Udaran beti kamisetak.
- **Tabernak ala pub-ak?** Badago alderik?
- **Auzoak ala erdigunea?** Bizitzeko auzoak, baina ibiltzeko erdigunea.
- **Ikastekotan, euskara ala ingelesa?** Euskara.
- **Beroa ala hotza?** Beti beroa.
- **Lana, errelebotan ala ordutegi normalean?** Lana ez zait gustatzen, baina aukeratzekotan, ordutegi normala.
- **Kirola, egitea ala ikustea?** Lehen egitea, orain ikustea, eta gero...
- **Ilea moztu ileapaindegietan ala beste nolabait?** Lagunekin.
- **Erosketak, dendetan ala merkatu txikietan?** Dendetan.
- **Trenetan, erretzaileentzako bagoi bereziak ala guztiak batera?** Erretzaileentzako bagoi bereziak.
- **Diskoa ala kaseta?** Etxean diskoak, eta autoan kaseta.
- **Kubatak ala zumoak?** Kubatak, eta gainera ronakin egindakoak.
- **Antzerkia ala zinea?** Biak gustatzen zaizkit.
- **Bixigua ala angulak?** Ahal izanez gero, angulak.
- **Mendia ala hondartza?** Hondartza hobeto.
- **Oporrak, kanpingean ala hotelean?** Kanping-ean.
- **Moda desfileak ala dantza jaialdiak?** Dantza jaialdiak.

# Artxibotik

Haratuzteak 1855

Lege zorrotzak ezarri zituzten Arrasateko Udaletxean 1855. urtean Haratuzteak zirela eta. Badirudi festa giroak, alaitasuna eta kareta zirela medio, kalte eta ezbehar dexente gertatu zirela aurreko urteetan.

Horrela bada, Udalak neurri gogorak hartu zituen. Zortzi ziren neurriok:

1.- Haratuzteek dirauten hiru egunetan mozorrotuak eta karetarekin ibiltzea zilegi da, baina ilunabarrera arte.

2.- Erlijioaren ministroen arropak erabiltzea debekaturik dago.

3.- Mozorroturik dagoen inork ezin izango du armarik eroan.

4.- Irainak eta mehatxuak debekaturik daude. Gainera moral eta dekoro publikoaren aurka doan edozein ekintza zigortua izango da.

5.- Inork, mozorroturik egon nahiz ez, ezin izango dio inori kareta kendu, ezta kentzera derrigortu, nahiz eta honek dekoaren kontra doan edozer burutu. Ordez, autoritatearengana aurkeztu ahal izango du eta honek mozorrotutakoak eginiko kaltearen arabera zigortuko du.

6.- Ugazabaren ardurapean, taberna eta posadetan kareta eramatea debekatua dago.

7.- Besteen jantziak zikindu edo apurtzen dituztenak autoritatearengana eramango dira merezi duten bezala zigortzeko.

8.- Herriko alguazilen ardurapean geratzen da neurri hauek betzea.

Eta inok ezjakintasanari errua bota ez diezaion, bando hau ohizko lekuetan jartzea agintzen da.

A.O.

comercial  
san juan

Garibai 12,  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,  
Tfnoa: 79 13 84







On Dionisio Isasmendi Mondragoeko musika bandarekin. 1953

**M**

ondra-  
goeko  
udalba-  
tza eta  
koru  
parro-  
kiala ez  
ziren

bakarrak izan agur-argazkia egiten On Dionisio Isasmendi organojole elorriarrarekin (Arrasate Press, 96. zenbakia), azken hau Bilboko katedraleko organojole izendatu zutenean.

Urriaren 24 eta 25eko musikaldiak

eskaini ondoren (Ideal zineman lehena eta herriko plazan bigarrena), musika bandako partaideek argazkia atera nahi izan zuten hogeitahiru urtez Mondragoeko organojole izan zena-  
ren ondoan.


Goiko iladan ezkerretik hasita, **Juan Jose Garmendia, Faustino Balanzategi, Francisco Aranbarri, Julio Gorroñoigoitia, Eusebio Gomez, Antonio Aranbarri, Jose Arregi, Evaristo Celemin, Adolfo Gomez eta Rafael Ortubai.**

Erdiko erreskadan ezkerretik,

**Crescencio Cerezo, Lorenzo Oruna, Jose Riviere, Domingo Agirreurreta, Jabier Lamarain, Juan Aranbarri, Jose Luis Abasolo, Jesus Azkarate, Bixente Azkarate eta Jose Luis Mendieta.**

Lehen lerroan, **Rufino Aranbarri, Mariano Azkarate, Santiago Otxandiano, Adolfo Gomez, On Dionisio Isasmendi, Justo Munarriz, David Artzamendi, Carlos Andres, Rafael Escudero, Ignacio Olazabal eta Luis Zubillaga**

**PUB  
HAIZEA**






**ENARA**  
OSAGARRIAK 

Maalako Errabala 21  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32



Almen Ikastola, 4. maila



ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU  
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



**77 08 15**



## ELKARBIZITZA

Bere gurutzea (senar, emazte, aita, ama, aitajaun, amandre, osaba, izeba, anaia, arreba, neba, ahizpa, seme, alaba, aitaorde, amaorde, semeorde, alabaorde, aitaginarreba, amaginarreba, suin, erraina) eraman behar izateaz beti kexu dena, aldi berean beste horren gurutzea da, zeina bizitza honetan egokitu zaion gurutzea (errain, suin, amaginarreba, aitaginarreba, alabaorde, semeorde, amaorde, aitaorde, alaba, seme, ahizpa, neba, arreba, anaia, izeba, osaba, amandre, aitajaun, ama, aita, emaztea, senarra) eraman behar izateaz kexu den, eta honela, nork bere ahalmenaren arabera eta nori bere beharren arabera.

*Augusto Monterroso*

*Cuentos, Alianza*

*Itzulpena: J.I.*

**ITURRIOTZ taberna**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

**Tfnoa:79 16 04**



**J. M. Heriz**

**Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak**

Otalora Lizentziatua. Arrasate



## 8 ASTELEHENA

- 18.30 **Teletestua.** Era guztietako iragarki eta abisuak.
- 19.30 **Bapirulauke,** umeen saioa, aste honetan San Viator Ikastolan grabatua.
- 20.00 **Berriak,** asteburuan Arrasaten gertatutako guztiaren berri, Koldo Rodriguezen eskutik.
- 20.20 **Mondrasport,** ATBren kirol-saioa, Beñardo Kortabarriak zuzenduta.
- 20.35 **Saltsa Maltsan,** Jaione Olabek ziazerbak eta otarainskez betetako hostorea prestatuko du.
- 20.45 **Erreportaia:**
- 20.50 **Berriak** (errepikaldia)

## 9 ASTEARTEA

- 11.00 **Teletestua.**
- 12.00 **Bapirulauke** (bezperakoa)
- 12.30 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.50 **Mondrasport** (bezperakoa)
- 13.05 **Saltsa-Maltsan** (bezperakoa)
- 13.15 **Bapirulauke** (errepikaldia)
- 13.45 **Erreportaia** (bezperakoa)
- 14.00 **Berriak**

## 10 ASTEAZKENA

- 19.00 **Teletestua.**
- 20.00 **Berriak,** Arrasateko albistegia, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** mahaingurua. Gaia: Etxebizitzaren arazoa Arrasaten.



21.10 **Berriak** (errepikaldia)

## 11 OSTEGUNA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
- Berriak** (errepikaldia)

## 12 OSTIRALA

- 19.00 **Teletestua**
- 20.00 **Berriak,** ATBren informatiboa, Begoña Garaik aurkeztua.
- 20.20 **Erretratoa,** J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Jose Luis Amozarrain "Paiko" Zerrajerako langilea eta



futbozale ezaguna mondragoetarren artean.

- 20.50 **Musikantoi,** Patxi, Mikel, Asier eta Peppek egiten duten saioa.
- Berriak** (errepikaldia)

## 13 LARUNBATA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
- 12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)
- 13.30 **Berriak** (errepikaldia)

# egizabal

*Bidekurutzeta 13,*  
**BERGARA**

# Elisabete

## SUKALDIAK

# eya

Zure etxebizitzarako apainketa-  
proiektuak egiten ditugu

Sukalde eta bainugelako altzaritan  
espezializatutako denda


Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07



**O**ihartzun handia

izan zuen Arrasate Pressek bere 100. zenbakia ospatzeko kiroldegian antolatu zuen jaialdiak. ATBk osorik grabatu zuen eta emateko asmotan dabil. Jakina, denboraz abisatuko dute noiz. Argazkian *Zarama* taldeko **Roberto Moso**, *Minxoriekin*

batera kantatzen.



## Telebegi

Herri edo Estatu baten demokrazia maila, estatu horren adierazpen askatasun mailaren arabera dago.

Estatu espainiarraren herri telebisten aurkako jarrerara oraindik erabatekoa ez den arren, hasia da bide horretan lehen urratsak ematen eta jaio berria den Arrasate Telebistak ere edonoz jaso dezake lehen-go itxiera-abisua. Bide hau sakonduko balitz, eta ondorioz mehatxuak sakonduko balira, adierazpen askatasun eskubidea iraindu eta zapaldu egingo litzateke.

Estatuek herriaren esanetara egon beharra daukate. Estatuak laguntza eman behar liekete herriaren ekimenei eta ez hauek moztu, herria bera da eta Estatuaren arrazoia.

Asko dira Euskal Herrian azken urteetan sortu diren herri telebistak, gurea beraien artean, eta beste hainbat lekutan ere azkarra izan da komunikabide honen bilakaera. Pertsona askok egindako lana baino zertxobait gehiago dago beraz joan, eskubide pertsonal eta kolektiboen, adierazpen askatasunaren iraupena hain zuzen ere.

*Andoni Urzelai*

**O**spitale Zaharra

berrikuntza sakonen beharretan dagoela dirudi. Martxoaren 21eko gauean Sebero Altube eta Azoka kalera ematen duen teilatu-hegala kraskatu egin zen eta teilak lurrera jausi. Zorionez, ez zuten inor harrapatu. Biharamon goizean, ostiralez, ingurua hesitu ondoren, udal mantenimendukoek jo eta ke ari izan ziren apurtutako zatiak konpontzen. Egin beharreko lanen berri jaso eta gero, lasai abiatu zen **Frai Rufino** azokarantz, izan ere egun horretan frantziskotarren aita probintziaren larentzako bazkaria prestatu behar zuen eta.



## Telebelarri

◆ Gaur egun bertsolaritzak ofizio paper larregi hartu du. Askotan paperak betetzeko erabiltzen da, afizioa izan barik"

Jon Iñaki Izarzelaiak *Zenbat buru hainbat aburu* saioan

◆ Asko dabilzan bertsolariei buruz, hau da galdera: ba al dago almagazten?"

Jon Sarasuak *Zenbat buru hainbat aburu* saioan

◆ Bertsotan erabiltzen diren moldeak gipuzkerazkoak dira eta horrek eragin handia izan duhemengo entzulegoaren zaletasun eta ulermenean"

Jon Iñaki Izarzelaiak *Zenbat buru hainbat aburu*






## ARIES

Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra


Besteengan eragina izango duten idejak etorriko zaizkuzu burura lan arloan, Aries. Maitasunari dagokionez, berriz, ez zara hain trebea egongo eta baliteke tirabiratxoren bat suertatzea laguna edota ezkontidearekin.



## LEO

Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra


Ez zara oso osasun egoera onean izango Leo. Zure jarreraren ondorio izango da, hau da, maitasun zein gizartearerikiko harremanetan ez duzulako behar adineko interesik jarri. Saia zaitez zeure buruarekin zintzo jokatzeko gero ez damutzeko.



## SAGITARIUS

Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Baliteke ezusteko diru sarreraren bat jaso izana urte hasieratik hona eta oraingoa da diru horiek inbertitzeko une egokia, baina ez diruarekin zerikusirik izango duen ezertan, baizik eta etekinik emango ez dizun gairen batean.



## TAURUS

Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Aspaldiko lagunren batekin topo egitea suerta liteke; garai atseginak etorriko zaizkizu gogora, bizipoza emango dizutenak. Merkataritzan diharduena bazara, Merkurio zure II. etxean egoteak zorte ona ekarriko ditu.



## VIRGO

Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Zorte ona emango dizun jendea ibiliko da zure inguruan Virgo, beraz ez ukatu inolako eskaintzarik, baliteke betidanik espero izan duzun bizimodua aukeratzeko posibilitatea suertatzea eta. Ez galdu esperantzarik amodio horrekiko.



## CAPRICORN

Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Hotza egiten duen garaian jaso zinen, eta ondorioz beroen zain egoten zara beti. Egun hauetako hego haizeak mesede ederra egin dizu, baina badakizu betirako ez dela. Horregatik, duda-mudatan ibiliko zara, manta elektrikoa erosi edo ez.



## GEMINI

Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Laguna eta bion arteko harremana primerakoa izango ez bada ere, ez dio trabarik egingo zure bizimodu profesionalari, tokian tokiko arazoei aurre egiten badiezu. Horrela jokatuz gero, profesio arloan aurrerabidea ziurtatuta daukazu Gemini.



## LIBRA

Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Zure 6. etxeak itxura onak jasotzen ditu planeta guztietatik, honek, osasun-egoera ezin hobean egongo zarela esan nahi du. Umore oneko egongo zara ondorioz. Saiatu zaitez izango duzun bizipoza besteei adierazten, primeran etorriko bait zaie.



## AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra


Ezusteko amodioren bat suerta liteke Acuario; beharra zeneukan gainera, izan ere maitasun faltaren ondorioz goibel samar zaudelako. Penak ahaztu eta norbera sendotzeko ez dago maitasuna bezalakorik. Lan arloan ere aurrerabidea izango duzu.



## CANCER

Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra


Gauzatu egingo dira zure xede guztiak Cancer. Honek bere alde ona eta txarra izango ditu baldin eta zure asmoak baiezkorrak edota ezezkorrak izango diren. Gertaerak oro gure nahiametsen baten ondorioz suertatzen dira Cancer.



## SCORPIO

Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Komunikaziorako egoera ezin hobean izango zara Scorpio. Beraz zure xedeak lortzeko jo ezazu dagokienengana, ez bait dute inongo eragotzen izango zure proposamenak onartzeko. Kaso gehiago egiozu lagunari, nahiko abandonatuta bait daukazu.



## PISCIS

Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Ongizale, alaitasun eta baikortasunaren Jupiter planeta zure osasunaren ebetik pasako da eta egoera ezin hobean egongo zara. Ez izan penarik galdu berri duzun amodio horregatik, zuretzat aproposagoa izango den beste bat ere azalduko da eta.

# ARRASATEKO II. IHARDUNALDIAK

## HITZALDIA

Apirilak 9, asteartea

## LAN MERKATUA ETA ENPLEGURAKO BIDEAK

- Lan-merkatuaren azterketa. Azken urteko eboluzioa.
- Enplegurako gaikuntza. Lan-esparru berriak.
- Langabeziaren aurkako hainbat ekintza. Lan baten bila.
- Galderak.

Hizlaria: **KOLDO AZKOITIA ZUBIZARRETA**

Enplegu eta Heziketarako Teknikaria.  
Deba Garaiko Eskualde-Komitea.




ARRASATEKO  
UDALA



kutxa



# Arrasateko Eskola Publikoak



**Matrikula-epa ireki da.**  
Eskaintzen dugu:

## IRAKASTEKO EREDUAK

- D Eredua.
- B Eredua.
- A Eredua. Gela mailakatua.

## IRAKASLEGO ESPEZIALIZATUA

Informatika, Ingelesa, Hezkuntza berezia,  
Soinketa eta Musika.

Laborategia, liburategia,  
informatika-gela eta laguntza-gela.

## PEDAGOGIKOKI

Talde multiprofesionala eta  
P.A.T. aholkuak.

## ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK


Guraso Elkartearen laguntzarekin.  
Multikirola, zinemaldiak, esku-lanak,  
argazkigintza eta bestelako ikastaroak.

## BESTE ZENBAIT ZERBITZU

Jangela eta garraioa.

**Informazioa osatu nahi baduzu,  
dei ezazu telefonoz;**

- Erguin: 79 77 74
- S. Andres: 79 00 44
- Ferixaluku: 79 05 53
- Musakola: 79 04 49





# OPEL CORSA BERRIA

ZEURE ESKU INJINERUTZA ALEMANA



Gasolina edo Dieselaz, 3, 4 edo 5 atekoa. 23 bertsio ezberdinetan. Corsa City, Swing, Gl, Joy, Joy Sport eta GSi. Zeuk erabaki zein hartuko duzun lagun. PSN-PVP: 1.004.000 pta. tatik\*

\*Fabrikatzaileak gomendaturiko prezioa (Penintsula eta Balearetarako) Garraioa, BEZ eta emate-aurreko gastuak barne.



EZAGUTU EZAZU

## TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)  
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86  
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako  
kontzesionaria

Kontzesionari Ofizialak

**OPEL**   
Hobeak esperientziaz